



BAT ALDIZKARIAREN
XX. URTEURRENA (II)



bat
Soziolinguistika
aldizkaria

DOSSIERRA

77. zenb. / 2010 (4)

HIZKUNTZA-SOZIOLOGIAREN IBILIA GUREAN

Mikel Zalbide

Euskaltzaina

Helbide elektronikoa; zalbide@hotmail.com

SARRERA

Tristura-puntu batez heltzen diot idazteko makinari. Joan zaigu Xabier, Xabier Lete handia. Ezin esango dugu, gutxien uste genuenean joan denik: gaitzak aspaldi mendean hartua zuen eta horren jakitun ginen gehienok, aldez edo moldez. Bagenekien hesteetako disfunczio serio bat zuela eta gaixotasun horrek, egunik huts egin gabe, gorputza zorrotz zaintzera behartzen zuela. Horren eta gehiagoren jakitun izanik ere, nahigabe samina eragin digu bere hil-berriak. Kosta egiten zaigu horrelakoe-tan, egunean eguneko eginkizunak begitarte arraiz bideratzea: barruak ez digu agintzen. Triste gaude gogo-aldartez, harat-honat gabiltzalarik besterik badirudi ere.

Bada motibo sendorik, izan ere, pentsalari-poetaren partitzez triste egoteko. *Geu izateko* gogoia pizten zigun Letek euskaldun askori, bere kantaera bizi-sarkorraz eta bere luma zorrotzaz. Gogo-berritu egiten gintuen kantuz ari zelarik, hitz lauz ziharduenean edo olerki sakonik paratzen zuenean. Geure txikian ere zerbait bagarela uste izateko oinarri emotiboa eskaintzen zigun. Oinarri emotiboa eta eredu argia, zuzentasun-

egarriz dabilen inork nekez agor dezakeena. Euskaldun izateko ilusioa pizten zigun Xabierrek, bere kantu ozenak entzuten eta Zeruko Argiko ekarpenak dastatzen ikasi genuenean, aspaldiko urte haietan. Halaxe egin izan digu gero ere, maiz aski. Gizatasun betearen mugetara hegaldatzen dakien bidelagunik badugula sentiarazi izan digu Xabierrek, gure arteko inork gutxik erakutsi digun neurrian eta graduari. Hori ikasi dugu bere ahotik eta lumatik, behin eta berriro.

Lumazkoak gutxietsi gabe, jendaurreko bere jarduna ondo iltzaturik daramat bekokian. Azal eta mami, hiztun ederra izan da beti Xabier. Gogoan dut ilunabar batez Donostiako *Kresala* elkartearen, orain dela berrogei bat urte, hemengo musika-kantuen gainean eman zuen hitzaldia. Euskara ederrean jardun zuen, argi eta zorrotz, zabal eta, aldika, autokritiko. Erakargarria gertatu zitzaidan hitzaldi hura. Gogoangarria ere bai: huraxe izan zen, oker ez banago, apunteak euskaraz hartu nituen lehen aldia. Euskaltzale sentitzen nintzen hitzaldi-aretoa sartu aurretik, egia da hori. Lehen baino zaleago atera nintzen *Kresalatik*: euskaltzaletasun zabal, sakon eta aberatsago baten jakitun eta miresle. Konbentzitu egin ninduen Xabierrek, mintzagai zuenari erantsi zion duintasun zabalaz, hitz-etorri oparoaz eta, aldi berean, erraz entenditzeko azalpen-modu xumeaz. Soziokulturazko perspektibatik *hemen eta orain* (hots: 1968-1970 inguruko Donostian) hemezortzi bat urteko gazte batek euskal dimentsioa (gainerakoak alboratu gabe) bere baitan jaso, landu eta garatu ahal izateko bide praktikoa erakusten zigun berak. Teorizazio esplizitu handirik gabe azaltzen zituen kontuak: konfigurazio soziokulturalen eta beren bilakabide posibleen gaineko azalpen aberatsa zeraman ordea gogoeta-molde hark bere errailetan, gutako askoren esperientzia pertsonalean erraz txertatzeko azalpen modua. Benetako euskaldun pentsalari gogo-landu baten aurrean nengoela konturatu nintzen ordu t'erdi hartan.

Pentsalari gogo-landua, intelektual betea izanik ere alde askotatik, ez genuen elite-giro estuetan, goi-ustezkoetan, murgiltzeko gizona. Hizkuntzaren erabilera fresko naturalak berak salatzen zizun hori, lehen entzunalditik beretik. Euskaldun arrunta zuen Xabierrek gogoan, olerkia edo kantua sortzeko luma hartzen zuen bakoitzean. Garai hartako euskaldun-jende arruntak (batez ere gipuzkoarrok, baina ez guk bakarrik) lehen kolpetik osorik eta atseginez, probetxuz eta liluraz jaso zezakeen hizkera-molde argia, esaldi-egitura ezaguna eta itzulika jatorra zituen, horrexegatik, begiko. Herrietako euskaldun garbien mintzamoldeaz baliatu nahi izaten zuen eta, nire ustez, aski neurri betean lortzen zuen bere xedea. Euskara batuaren arauak errespetatzen saiatzen zen, jakina, baina bigarren mailako kezka zuen arauzko zuzentasun hertsia kontu hori¹. Bazuen horretan, seguru asko, Lekuonatarren eskolatik² jasotako lezorik. Izan edo ez, kontua da maixukeriazko erakusgarri gutxi eta hiztun arruntarenganako errespetu handia erakusten zuela oro har, hitzez eta idatziz.

Euskaltzale sentitzen nintzen hitzaldi-aretoa sartu aurretik. Lehen baino zaleago atera nintzen Kresalatik: euskaltzaletasun zabal, sakon eta aberatsago baten jakitun eta miresle. Konbentzitu egin ninduen Xabierrek.

Benetako euskaldun pentsalari gogo-landu baten aurrean nengoela konturatu nintzen ordu t'erdi hartan.

*Hogei urteko epe-muga
aitzakia harturik,
gogoetarako gonbita egin
digu aldizkariak. Euskal
hizkuntza-soziologiak
epealdi horretan izan
duen bilakaera argitzen
saiatu nahi luke ale
monografiko honek:
jakintza-arloaren zer
adarretan jardun dugun
maizenik, zer esparrutan
egin den aurkikuntza
baliagarriarik eta zeinetan,
damurik, axal-axalean
gelditu garen edo huts
egin dugun.*

Azalaren pare zuen barrena ere: gizon-emakume arrunt gehienon jokaera eta pentsaera, kezka eta ilusioak, beldurrak eta gogo-grinak zituen bere kantu askoren lehengai. Euskaldun korrientearentzat ari zen bera, sarrienik, ele ederrezko gogoetan. Lanak eta lagunarteak, maitasunak eta gorrotoak, eder-senak eta jakin-nahiak, gaitzerizkoak eta inbidia mendean hartutako gizakiaz mintzo zitzaigun sarri, sentiera jasoenak kantatzerakoan ere.

Ez genuen Xabier pentsaera zurrun, beti-batekoaren zale. Bere buruari ere ez zion halakorik opa. Dudaz josia zuen barrua eta, horrengatik, erantzun betea eman baino nahiago izaten zuen, sarri, entzule-irakurleoi bere baitako duda-mudak eta zalantzak gordin-gordinik azaldu: “eguneroko lagunak ditut beldurra eta zalantza” esana digu inoiz, honako hau erantsiz: “gurdi okerra zuzen lezakeen dotrinarikan ez dut nik”. Ez zen, halere, eklektiko. Ez eta, zuhurtziaren izenean-edo, amildegi sakonen eta ateka gaitzen ihesi ibili zale. Gure arteko hainbat jokabide ankerren gaintxurizkatzaile ere ez: “odolarekin pozoitzen dugu herri baten izerdia” esana digu aspaldi, penaz eta dolorez. Hitzaldietan bezala kantuz ari zenean, agerikoa zuen oso ezaugarri etiko hori. Gizatasuna, gizabidea eta gizalegea, zeinahi bereizgarri banandu ahal balitez ere hirurak, gizabanakoaren eta bizidunon funtsezko mugarri direla uste zuen. Asmo-interes oldarkorrenen izenean ere ezin alde batera utzi diren mugarriak, geure gizatasunari bere osoan eutsiko badiogu. Hori uste zuen berak eta, lagunarteko solasean zein jendaurreko azalpenetan, ozen aldarrikatzen zekien.

Ez genuen Xabier, jakina, zerutik behera eroritako aingeru muxugorri irribartsua. Ez zen, inola ere, on-puska huts horietakoa. Grinaz eta desioz gainezka egin ohi zuen askoren moduan. Hanka biko gizaseme bizarduna zen bera, dohain ukaezinez eta hutsarte mingarri hornitua. Akats-ahuldade horien berri ondo asko zekien. Bere izaera pertsonal konplexu eta bihurtirik, ez orbanik gabeko ikuspegi zerutiarretik, juzkatzen zituen horregatik bestean esan-eginak. Bere oker-eginak oso gogoan zituen Xabierrek, bestean bidegabeak juzkatzerakoan. Esparru biografiko intimoenean huts egin izanak, bereziki, beste hutsegite askok baino gogorrago astintzen zuen bere barrua: berak maite zituenei, eta bera maite zutenei, leialtasuna gorde ez izanak zirrara bizia eragiten zion. Nahigabea ere bai.

Leialtasun-falta horren pare, etikaren beste esparru batera hegaldatuz, mundu zabalean (Txileko eta Arjentinako altxamendu militarretan, adibidez) edota geure inguru hurbil-mingarrian, urtea joan eta urtea etorri eguneroko ogi bihurturik izan dugun hainbat ekimen bortitzen itsutasuna argi arbuiazen ikasi³ zuen. Gizaki-eredu eta herri-bide anaiorrago baten bila ari izan zen sarri, olerkiz edo kantuz ziharduenean: etxepeko haur andaluzari eginiko sehaska-kanta ez da kasualitate anakronikoa, ez eta salbuespen bitxia. Zabal zituen begiak, bihotzaren pare. Urrietako oihartzuarra ez genuen geure zilborrari itsatsitako poeta etxekoi hutsa.

Osorik eta erabat inoiz esan ezin diren baina nonahiko eta noiznahiko gizakiaren ondare ditugun estalitako egia sakonen bilatzaile nekaezina genuen Xabier.

Bilatzaile nekaezina. Horrek ematen digu oinarri, gaurko solasaren hariari heltzeko. Joan den mende-erdi honetan bilaketa etengabe ibilia dugu, Xabierren pare, gure soziolinguistika. *Soziolinguistika* edo, maisu handien hasierako⁴ terminologiari eutsiz, *hizkuntza-soziologia*. Bilatze-lan horretan ibilia dugu, azken hamarkada biotan, *BAT* aldizkaria ere. Hogeituro urteko epe-muga aitzakia harturik, gogoetarako gonbita egin digu aldizkariak. Hemengo hizkuntza-soziologiak hogeituro urteotan zer ibili modu egin duen galdetu digu *BAT*ek. Euskal hizkuntza-soziologiak epealdi horretan izan duen bilakaera argitzen saiatu nahi luke, beste hitzetan esanik, ale monografiko honek: jakintza-arloaren zer adarretan jardun dugun maizenik, zer esparrutan egin den aurkikuntza baliagarririk eta zeinetan, damurik, axal-axalean gelditu garen edo huts egin dugun.

Baiezkoa eman diot gonbitari, bi aldiz pentsatu gabe. Ohar bat egin nahi nuke ordea, aurrerago gabe: azken hogeituro urteak ez baina aurreko hogeituro urteak hartuko ditut aipagai nagusi, inoiz atzerago ere joko dudalarik, nire iritzi-azalpen honetan. Motibo jakinak bultzatzen nau hartara: hizkuntza-soziologiaren sailean 1990etik hona gertatu dena gogor loturik dago, azal eta mami, aurreko bi hamarkadetan egindakoarekin. Aurrekari haiek alboratuz nekez adieraz litezke, hala uste dut nik, azken hogeituro urteotako ibiliaren argi-ilunak. 1970 eta 1990 arteko gertakariei aparteko isla eskainiko diet, horregatik, gaurko saiotxo honetan. Gatozen, beraz, harira.

1. IBILBIDEA ARGITZEN LAGUNTZEKO ZENBAIT EPE

Inoiz euskal hizkuntza-soziologiaren ganorazko azalpenik egingo bada, oso kontuan hartu beharko dira gure aurrekoen saio ugariak. Historia luzetxoa du, izan ere, mintzajardunaren giza arteko moldaeraren gure arteko gogoetak. Lehenagoko beste hainbat hurbilbide gutxietsi gabe, honako bost epeok bederen ondo seinatu beharko genituzke 1990era bitartean: a) XIX. mendearen azken hamarkada trumiltsua⁵; b) 1916 ingurutik 1936ra arteko instituzionalizatzeko-saioa⁶; c) XX. mendearen hirurogeiko hamarkada oldarkorra, zenbaitek 1956an abiarazi ohi duena⁷, d) 1970etik 1982ra doan trantsizio-aldia, zuri-gorritziko ametsez estalia, eta e) Laurogeiko hamarkada operatiboa, batez ere 1983tik 1990era artekoa. Bost epe horien ekarpena interesgarria da: aztergaiz zabala, ikuspegien kontrasteaz aberatsa eta zenbait analisisen zorrotzasunaz erakargarria⁸. Orain hitz tekniko propioz, ponpoxo eta doi azaltzen ditugun kontzeptu asko zehatz landuak⁹ utzi dizkigute gure aurrekoek.

Ez diegu, ordea, kasu handirik egin. Motiborik ez da falta izan, horrela jokatzeko: aurrekoen ondarea ez zaigu behar den neurrian (ez eta, perspektiba akademikoari dagokionez, behar bezain *handiki-soinekoz jan-*

Orain hitz tekniko propioz, ponpoxo eta doi azaltzen ditugun kontzeptu asko zehatz landuak utzi dizkigute gure aurrekoek.

“Aparta-que-voy”-ko formula izan da gurea, sarri asko. Hots, aurrekoena aztertu eta (baliagarri izan zitekeen neurrian) gureganatu ordez hutsetik hastekoa.

Inon paradigma-aldaketa argirik abiatu bada gure bizi-denboran, etxeko hizkuntza-soziologiaren alorrean, Jose Maria Sánchez Carrión "Txepetx"-en 1972ko ekarpenarekin izan da.

tzia) iritsi. Ez zaigu iritsi edota ez dugu jakin hain hurbil (gero eta hurbilago) dauden iturri horien bila joaten eta *handiki*-izaera hori, kontzeptuz zein terminologiaz, zuzen interpretatzen. Motibo bategatik edo bestegatik, "aparta-que-voy"-ko formula izan da gurea, sarri asko. Hots, aurrekoena aztertu eta (baliagarri izan zitekeen neurrian) gureganatu ordez hutsetik hastekoa¹⁰. Egia da Lizardik ere "berriro igo nauzu ene mendira" esaten zigula¹¹. Erniopeko Urkizura ez zen ordea aldiro hutsetik hasteko asmoz igotzen, bere baitako edertasun-senari eta *olerki-irakimenari*¹² atlelhoak zabaldu eta barne-muinetako gogo-giroa egurastu nahirik baizik.

2. PARADIGMA BERRIAREN ATARIKOA

Aurreko belaunaldien esan-eginak alde batera utzita gatozen, ordea, hurbilagoko gertakarietara. Zentra gaitezen geure esperientzia pertsonalean: aurrez aurrekoan, batez ere gazte-denboratik honakoan. Kontuak horrela mugaturik, goiko bost epe haietatik hirugarrena (1970etik 82rako) dugu, dudarik gabe, berritzaileena. Inon paradigma-aldaketa argirik abiatu bada gure bizi-denboran, etxeko hizkuntza-soziologiaren alorrean, Jose Maria Sánchez Carrión "Txepetx"-en 1972ko ekarpenarekin izan da. Bere *El Estado Actual del Vascuence en la Provincia de Navarra* (1970). *Factores de Regresión. Relaciones de Bilingüismo* ezin alboratuzkoa da orain ere¹³. Fun-tsezko hiru ezaugarri zituen 1972ko lan hark berekin, ekarpenaren balio-az oso gora mintzo direnak eta orain ere etxeko hizkuntza-soziologiaren perspektiba aberatsik eskuratu nahi duenak kontuan hartu behar lituzkeenak: a) batetik, informazio kontrastatuaren gainean jardun zuen iker-tzaileak; garai hartarako, eta "kanpotik" etorritako ikertzaile gazte baten-tzat, harrigarri ondo informaturiko datuak ematen saiatu zen Txepetx¹⁴; b) bigarrenik, orain ere aski baliagarria dugun egituratze-markoa erabili zuen bere lanean. Egia da terminologia tekniko ezagunez gutxitxo horni-tu zuela kontzeptu-marko hori, lekuan-lekuan jasotako datuak sailkatu eta sistematizatzeko orduan. Terminologia gorabehera hor daude ordea, eguna baino argiago, behin eta berriro baliatzen ditugun hiru zutabe kont-zeptualak: hizkuntza bataren edo bestearen erabilera kolektiboa¹⁵, hiztun jakinen eta hiztun-multzo zehatzen hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta, azkenik, aurrez aurreko hiztunei eta hizkuntzei buruzko iritzi-jarrerak. Hots, erabilera, gaitasuna eta jarrera¹⁶. Konturatzen ez bagara ere haren ildotik gabilitza geroztik, lautatik hirutan, gai horiek lantzerakoan. Eta c) azterbide posible gehienak landu zituen bertan, aski era ordenatuan: azterbide *deskriptiboa* (zer gertatzen da gaur Nafarroako leku honetan, adin-talde horretan, gizon-emakumen-zkoetan, jardun-gune hartan, urlia eta sandia *huntaz edo hartaz* ari direlarik?), *zinetikoa* (zer gertatzen zen lehen eta zer gertatzen da orain, erabilerari edo gaitasunari dagokienez? Edota zer gertatzen da gaur zaharrekin, zer helduekin, zer gazteekin eta zer neska-mutilekin?), *dinamikoa* (cf. izenburuko *factores de regresión*: zer-

gatik doa euskararen erabilera, gaitasuna edo berari buruzko estimujarrera atzera? Aitzitik, zergatik eusten zaio euskarari hain bizirik Etxarri-Aranazko hiru hergoienetan?), *prospektiboa* (nora goaz, goazen bidetik?) eta *preskriptiboa* (zer egin liteke, eta zer egin behar genuke, euskarari oraindik bizirik dagoen Nafarralde horretan bizirik eusteko?).

Txepetxi zor diogu, orobat, geolinguistika hutsetik haranzko balioa duen *reducto del vasco*, *avanzada del castellano* eta *zona de contacto* arteko bereizketa hirukoitza. Baliozkoa gertatu zitzaion Txepetxi zatiketa hirukoitz hori, euskara 1970ean gutxi-asko bizirik zuten eskualde, herri edo hergoiaren hizkuntza-erabilera tipifikatzeko. Egia da hitz horiek ez direla ezinbestean Sánchez Carrión-ek berak asmatuak. Egia da orobat bere *ukipen-zona* eta handik gutxira (demagun, labor beharrez, Siadeco-ren bidez) luze-zabal aipaturiko *ukipen-zonak* lehen begiratuan dirudien baino urrutixeago daudela elkarrengandik. Baina iturria hor dago: nori berea da gizalegea. Beste horrenbeste gertatzen da, kronologia eta inspirazio-iturri zuzena alde batera uzten baditugu, *reducto del vasco* delakoarekin. Gaur egun, batez ere Fishman-en 1991ko ekarpenari esker, gero eta maizago darabilgun *arnasgunearen* kontzeptua ez da justu-justu Txepetxi-en *reducto del vasco*. Baina hurbil dagoenik ere ezin ukatuko du inork. Labor bilduz: oso aberatsa da *El Estado Actual del Vascuence en la Provincia de Navarra* (1970) hura. Aberatsa eta, ikusi berri dugunez, emankorra. Eskubide osoz aitortzeko, horregatik, 1972tik 1982ra arteko epearen giltzarri-izaera.

3. PARADIGMAREN LANKETA: KONTZEPTU ETA IZEN BERRIEN ARGILUNAK

Handik urte gutxira, 1974an, bigarren ekarpena egin zuen Txepetxi: “Bilingüismo, Disglósia (sic), Contacto de Lenguas. Hacia una delimitación de conceptos” artikulua zabal eta mamitsua. Ordura arteko bibliografia soziolinguistikoaren ezaguera sakona erakutsiz, formulazioz desegokiak, kontzeptu-kargaz ahulak edo terminologiaz ilun-lausoak iruditzen zitzaizkion elementuen kritika zorrotza egin zuen bertan¹⁷, batetik. Bestetik, eta horretan zentratu nahi nuke oraingoan, ordaineko kontzeptuak eta terminoak eskaini zituen franko. Hamarkada luzez indarrean egon diren (partez: dauden) kontzeptu eta izen giltzarrien euskal abiaburua bihurtu zen, horrela, bere ekarpen hura.

Diagnostiko larri samarretik abiatu zen bera: “El confusiónismo y el sectarismo han llegado a ser enfermedades endémicas de esta joven disciplina”. Erremedio egokia bilatu nahi izan zien Txepetxi gaitz horiei. Kritika-lan eta birmoldaketa kontzeptual handia eskatzen zuen horrek. Ez zen uzkur ibili Txepetxi, bere ustez oker zeudenak zuzentzen eta ilun zeritzanak argitzen. Egia da ez zela hutsetik abiatu: izan zuen bide-erakusle hurbilik, katalan-herrietan bereziki, lan horri ekiterakoan. Orduko bibliografiaren berri duenak badaki Aracil-en, Ninyoles-en eta Vallverdú-

Terminologia gorabehera hor daude behin eta berriro baliatzen ditugun hiru zutabe kontzeptualak: hizkuntza bataren edo bestearen erabilera kolektiboa, hiztun jakinen eta hiztunmultzo zehatzen hizkuntza-gaitasun erlatiboa eta, azkenik, aurrez aurreko hiztunei eta hizkuntzei buruzko iritzi-jarrerak. Hots, erabilera, gaitasuna eta jarrera.

Labur bilduz: oso aberatsa da El Estado Actual del Vascuence en la Provincia de Navarra (1970) hura. Aberatsa eta, ikusi berri dugunez, emankorra. Eskubide osoz aitor dakioke, horregatik, 1972tik 1982ra arteko epearen giltzarri-izaera.

ren itzala luzea dela Txepetxek ekarpenetan. Aitortu ere halaxe egiten du berak, behin baino gehiagotan. Ez haiena bakarrik, halere: perspektiba zabal integratu nahi izan zuek Txepetxek 1974ko saio hartan.

Kontua da ekarpen hark ondorio luzea utzi duela gure artean. Ondorio luzea kontzeptuei eta terminoen denotazioei dagokionez eta marka-arrasto sakona, oso bereziki, konnotazioen alorrean. Ondorio-multzo zabal eta, oro har, euskal hizkuntza-soziologiaren garapen-bideari dagokionez gazi-geza¹⁸. Aurrerapen eta miresgarrizko argitasun-puntu ugarietz gainera¹⁹ hiru ondorio kaltegarri utzi ditu saio hark, nire ustez: a) *elebitasun* kontzeptuarekiko mesfidantza-giroa, errezelozko jarrera, ahuldu ordez indartu egin zuen²⁰; b) ukipen-egoerako hizkuntzen arteko *konfliktu-borrokaren* ezinbestekotasun-ikuspegia zurkaiztu zuen, eta c) diglosia hitzaren distortsioa areagotu egin zuen, jatorrizko adiera-muinetik nabarmen aldentuz.

Elebitasuna (“etsai”aren lanabes kuttuna zela-eta) *de facto* txarra zeneko ikuspegiak zabal korritzen zuen gure artean, Txepetxek aurretik. Bere ekarpenak ez zuen joera horretatik ihes egiten jakin, eta gaitzuler-tuak luzaro iraun izan du gure artean. Aracil-en bidetik, honela zioen Txepetxek 1974an: “como ha afirmado Aracil, ‘el concepto del bilingüismo mítico es esencialmente evasivo, inconcreto, inefable (...). En este campo domina la más desconcertante imprecisión’. Se podría afirmar parafraseando a Paul Wexler que ‘until non-arbitrary models of quantification are developed, the application of the term(s) (...) must remain impressionistic’” (Sánchez Carrión, 1974: 11). Beste heldulekurik ere aurkitu zuen parean, elebitasunari muzin egiteko. Horrela, Ninyolesen 1972ko esaldi ezagunera joaz honela zioen Txepetxek (1974: 9-10): “La exaltación irresponsable del bilingüismo y su negación como problema son dos caras de lo mismo ‘de una visión particular del conflicto destinada a neutralizar los efectos de una fricción social’ y que de esta manera ‘el bilingüismo acaba por interpretarse no ya como una dualidad lingüística sino que se identifica con el proceso sustitutivo que origina esta dualidad’”. Egia da elebitasuna arazo-iturri izan litekeela eta, askotan, luze-zabaleko mintzaldatzearen (hots: *language shift* jakinaren) aldi bateko ager-karia besterik ez dela. Egia da, orobat, mintzaldatze hori gutxitan izaten dela gertaera lasai, goxo, oinazetik gabea: halakorik ez da gertatzen, batez ere, galtzaile ateratzen ari den hiztun-taldea horren jakitun denean eta bere jatorrasun etnolinguistikoaren kontzientzia (eta horrek inspiratzen dion bizirik iraun nahia) beste distortsio larriago batzuegatik erabat galdurik ez dituenean. Egia da, era berean, “urak beren bidetik jarrai dezan” interesaturik dagoen hainbatek zauri horren benetako neurria eta izaera estaltzeko erabili izan duela, sarri, *elebitasun* hitza. Konforme nago, erabat, horraino. Baina ez da egia (eta hor sartu ginen irteera txarreko putzu-zuloan, Hamelingo neska-mutilak flauta-txistulariaren ondoan bezala), elebitasuna *per se* kaltegarria denik. Are gutxiago, elebitasuna lehenik eta behin atributu pertsonala dela onartzen badugu. Kontua da lehendik gure artean aski

zabaldurik zegoen sentiera (ez, itxuraz, buru-gogoeta) bati amor emanez *elebitasun* (eta *elebidun*) kontzeptuaren kontrako gurutzadan abiatu zela gutako hainbat. Garai bateko demasia haiek ahaztuxeak daude orain, egia da hori. Bere garaian kaltegarri gertatu ziren, ordea, lagetxeko hizkuntza-soziologia oinarri sendoz eraiki ahal izateko²¹.

Konfliktu hitzaren kontua besterik da, antzeko elementurik falta ez bazaio ere²². Kontzeptua (eta bere benetako izaera) nekez ukatuko du hizkuntza-soziologian serio jardun nahi duen inork²³. Kontua ez da ordea elkarren pegante dauden hiztun-elkarteetan aldiaren behin edo maiz-sarri konflikturik sortzen den ala ez. Arazoa, funtsean, katalan-herrietatik zabalduriko argudio-bideak sortu izan du maizenik: ukipen-egoera *ezinbestean* konfliktu-iturri deneko ikuspegiak alegia. Tradizio katalanak ezaugarri bikoitza du, jakina denez, *conflicte* kontzeptuaren pean. Batetik “pugna entre dues comunitats lingüístiques per ocupar àmbits d’ús” Bestetik, eta hor dago koska: “parlar de contacte lingüístic implica parlar de conflicte” (Ruiz i San Pascual et al, 2001: 76). Hizkuntza-ukipena ez omen da alegia, *beti eta nonahi*, borroka mikatzaren goxagarritzko estalkia baizik. Hor dago muga-lerroa. Katalanistikaren ezaugarri bereizle izatera iritsi izan da muga-lerro hori, hein batean. Europan eta munduan formulazio hori gero eta indartsuago dabilenik ez nuke esango. Georg Kremnitz-en, Peter Nelde-ren, Klaus Mattheier-en, Els Oksaar-en eta abarren garai bateko (ez seguruenik, egungo eguneko) ekarpen europarrak ez dira ordea, nolana ere, gutxiestekoak (ikus, adibidez, Goebel: 1996).

Arazo kontzeptual nagusia, benetako arazo larria, *diglosia* famatuarekin daukagu ordea²⁴. Txepetx bera azkar konturatu zen horretaz. Laster antzeman zuen, 1974ko bere argitze-saioa gorabehera kontzeptuaren ibilbide praktikoa urruti zebilela berak begiz jotako helburu zehatzetik. Hala zioen handik hamaika urtera, Getxon, hizkuntza minorizatuen soziologiazko batzarrean, *diglosia* kontzeptuaren gure arteko erabilera zela-eta: “Lo que ha ocurrido luego con (el término diglosia) es la demostración de que no se pueden establecer unas relaciones normales con una palabra sólo mediante el instinto. Porque, a falta de una formulación intelectual rigurosa que señale con precisión su contenido y sus límites, ha pasado a ser un ejemplo típico de palabra-baúl”²⁵. Eskertzekoa da aitorten zorrotz hura, benetan argia eta egokia. Gauza batean ez nator bat, ordea, Txepetxekin. Delako “falta de una formulación intelectual rigurosa” haren bekatua besteek egin zutela iruditzen zitzaion berari: berak ez zuen “nahaspila” hartan zerikusirik, antza. Gainerako guztiok bezain korapilatua zegoen bera ere, ordea, nahaste-borraste hartan. Berak ere huts egin zuen, instintu-senaz haraindiko plano batetan jarduten saiatu izan arren, *diglosiaren* trataeran. Hitzaren jatorrizko kontzeptu-osaera zentrala errazegi itzulipurdikatuz, ardoari “kafe” eta kafeari “ardo” esateko libertade gehiegizkoaz jokatu zuen ene ustez. Gustatu ala ez, *diglosia* hitzak eta kontzeptuak bazuten ordurako sortzailerik eta jabetza intelektual ezagu-

1974an, bigarren ekarpena egin zuen Txepetxek: “Bilingüismo, Diglosía (sic), Contacto de Lenguas. Hacia una delimitación de conceptos” artikulua zabal eta mamitsua.

Elebitasuna (“etsai”aren lanabes kuttuna zela-eta) de facto txarra zeneko ikuspegiak zabal korritzen zuen gure artean, Txepetxen aurretik. Bere ekarpenak ez zuen joera horretatik ihes egiten jakin, eta gaitzulertuak luzaro iraun izan du gure artean.

nik: kronologiari eutsiz (eta urruneko aurrekariak alde batera utzita) Charles A. Ferguson (1959), John J. Gumperz (1962, 1964) eta Joshua A. Fishman (1967; 1980). Kontzeptuak berak zehaztaperen, garaperen eta murriztaperen ugari izan badu ere geroztik, abiaburuko hiru bidegile haien ekarpenak osatzen du gaur ere diglosiaren muina.

Muin horrek honako elementuok ditu (gutxienez) berekin: a) mintzajardunaren giza arteko moldaera (moldaera bat, beste zenbaiten artean) adierazten du diglosiak; hots, atributu *soziala* da diglosia definizioz, ez *indibiduala*; b) aurrez aurreko hizkuntza (edo hizkuntza bereko aldaera berezi) bik (edo gehiagok) hiztun-talde baten (kasurik zabalenean, hiztun-elkarte osoaren) *espazio soziofuntzionala banaturik* daukate: espazio osoaren zati bat H hizkuntzaz (edo aldaeraz) bideratzen da, eta beste zatia L hizkuntzaz (edo aldaeraz); c) *konpartimentazio* soziofuntzional hori *egonkorra* da, halako *neurri* batean²⁶; eta d) L hizkuntza *etxean ikasi ohi da*, ama-hizkuntza gisa; H hizkuntza, aldiz, *gero* ikasten da (eskola bidez edo bestelako sozializazio-eragileen bitartez), eta ez beti. Lau baldintza horiek *funtsezkoak* dira, diglosiaren definizio fundazional-klasikoen arabera²⁷. Hori da euskaldunok, Txepetx buru genuelarik, alde batera utzi genuen kontzeptu-marko basikoa. Hortik aldendurik hasi ginen *diglosia* batzuk *sozialak* eta beste batzuk *indibidualak* direla esaten (Sánchez Carrión, 1974: 25 hurr). Distortsio nabaria sortu zuen berrikuntza horrek, hobe beharrez eta zehaztasun-asmoz egin bazen ere²⁸. Horretan ez ginen, gainera, gelditu: diglosia *per se* ezegonkorra zela erabaki arte ez genuen onik izan, kontzeptuaren definizio klasikoaren hirugarren ezaugarria ere zeharo ezabatuz²⁹. Horrela lortu genuen urte gutxiren bueltan, argitasun bila genbiltzalarik, diglosiaren kontzeptu nuklearra erro-errotik itzuli-purdikatzea. Instintu hutsez zebiltzanen arazoa bakarrik ez zen beraz izan: gainerakook ere, Txepetx buruzagi genuela, ez ginen gehiegi luzitu.

Ez genuke konstatazio hori autoflagelazio gisa hartu behar. Are gutxiago Txepetxen merezimendu handien gaitzespen moduan³⁰. Bera da, inor baino lehenago, leial mintzatu zaiguna: “al releer trabajos anteriores encuentro muchas veces (..) tonos de voz que ya no son el mío; ilusiones que se desvanecieron; estados de ánimo con los que no me identifico (1999: 26-7). Ulertu nahi badiogu, argi ari zaigu bere ziaboga partikularra esplikatzen³¹. Beste gizarte-giro batean, beste itxaropen-eskema batzuen barnean, idatzi zituen hainbat gauza orain ez lituzke hain erraz errepikatuko. Hori ez da, seguruenik, bere kontua bakarrik: gutako zenbatak ez ote genuke, alde edo moldez, beste horrenbeste egingo?

Kontua da orduko zenbait gehiegikeriak, diglosiaren inguruan bereziki, kalte egin diola euskal hizkuntza-soziologiaren aurrerabideari. Egia da eragozpen hori ez dela gurea bakarrik: diglosiarekiko harremanak ez dira hemendik kanpora ere, hizkuntza-soziologoaren artean, batera errazak izan. Iritzi-jarrera zabal samar baten bozemailetzat har ditzakegu, alde horretatik, Colin Baker eta Sylvia Prys Jones. Ikus dezagun beraien balio-

espena: deskriptibotik gehiago du diglosiak (eta *domain* edo jardun-gune delakoak, bide batez), zinetiko-dinamiko baina (1998: 121). Colin Baker eta Sylvia Prys Jones-en esanean “the problem with diglossia and the idea of language domains is that the reasons for the distribution of two or more languages across domains are left unexplained. A full understanding of a diglossic situation requires an historical analysis of socioeconomic, sociocultural development within geographical areas. That is, by itself diglossia and the concept of the domains are in danger of providing descriptions rather than explanations; a static picture rather than an evolutionary explanation”.

Oso etxekoa dugu kritika-modu hori: definizio praktikoak behar ditugu guk, gaitzaren diagnostiko zorrotza egingo digutenak. Diagnostikoa eta, ahal balitz, errezeta egokia izan nahi genituzke eskueran³². Egoera kaxkarrean gaudela jakitea ez dugu aski: hain egoera kaxkarrean *zer-gatik* gauden azalduko duen teoria behar dugu. Aspaldiko kritika dugu beraz hori, ahuldutako hainbat hiztun-herritan eta, bereziki, gure artean. Ausart itxuraz jantzita etorri ohi da diglosiaren kritika hori. Aski bestelakoa du ordea, nire ustez, barrena. Ikuspegi ezkor horrek ez digu lagunduko mintzajardunaren giza arteko moldaera (oraingoa eta noiznahikoa, bai eta egoera-aldaketan esplikazio- eta iragarpen-indarra berekin lukeena) argitzen eta sakontzen. Behar-beharrezkoa dugu diglosiak nagusiki lantzen duen deskribapen-fase hori, aurrera egin nahi badugu beste perspektibetan: dinamikoan, prospektiboan eta, are, preskriptiboan³³.

Badakigu beste zer kritika modu jaso izan duen diglosiak. Kontzeptu abstraktua dela, lausoa eta, horrexegatik, aplikazio-indar apalekoa. Gauzak ez dira horrela: kontzeptu abstraktuak (goiko bi horiek eta beste hainbat: *gizartea, kultura, hizkuntza, klase soziala, gizatalde etnikoa*, eta abar) deskribapen-mailan erabiltzea, eta azterbide horretatik argitasun zorrotzak ateratzea, ez da kaltegarri; are gutxiago ezinezko. Bistan da gure jakin-nahiak hortik harantzko gose-egarria duela, eta hori ezin agor litekeela azterbide deskriptibo hutsaz. Batak ez du ordea bestea kentzen. Are gehiago: batak lagundu egiten du bestea aitzinatzen.

Polemika partisanoaren esparrutik atera beharrak dauzkagu, beraz, hizkuntza-soziologiaren goren mailako abstrakzioak: *diglosia* oso bereziki, eta horren jirabirako beste zenbait: *jardun-gunea* adibidez. Bat nator horretan, erabat, Joshua A. Fishman-ekin. Horretan eta, bereziki, gure arteko eztabaida antzu askoren irtenbide inteligentea izan behar lukeen ikerketa-programa honetan: “More data on a variety of cases illustrating diglossia in various degrees, more intermethodological / interdisciplinary / intertheoretical research, more concern for various “types” of diglossia, more attention to degrees of diglossia in various “types” of social and cultural change/continuity contexts, more theory building on empirical bases and with a striving toward parsimony; these are truly crucial. They are the true scholarly agenda. (..) Diglossia (..) requires, as does the rest of

*Egia da elebitasuna
arazo-iturri izan litekeela
eta, askotan,
luze-zabaleko
mintzaldatzearen (hots:
language shift jakinaren)
aldi bateko agerkaria
besterik ez dela.*

*Hizkuntza-ukipena ez
omen da alegia, beti eta
nonahi, borroka
mikatzaren goxagarritzko
estalkia baizik. Hor dago
muga-lerroa.*

Behar-beharrezkoa dugu diglosiak nagusiki lantzen duen deskribapen-fase hori, aurrera egin nahi badugu beste perspektibetan: dinamikoan, prospektiboan eta, are, preskriptiboan.

the sociolinguistic enterprise, a dispassionate passion for inquiry, well-formulated and well-informed, above and beyond ideological and political sympathy or antipathy” (Fishman: 1985: 54-5; 1989: 198-9). Ozenago esan liteke agian: argiago. Labur bilduz: zorretan gaude Txepetxekin, gauza askogatik. Besteren artean 1970 ingurutik aurrera eskaini izan digun denbora, buru-kantsazio, esfortzu animiko, sortze-ahalmen eta begirunezko jarrera kritikoagatik. Egin dezakegun okerreana, jakina, berak esandako guztiak itsu-itsuan hartzea da. Diglosiarenean, eskueraz kanpoko lurraldetasun zabal-lausoarenean bezala, baditugu motiboak gauzak berrikusteko. Ez dut uste Txepetx bera haserre izango genukeenik horrekin.

4. ASMO ZABALEKO APLIKAZIO-LANEN GARAIA (1977-82): SIADECO-REN ZENTRALITASUNA

Franco hil egin zen, azkenean. Aldaketa politiko-operatiboen uea etorri zen. Ez zirudien diglosiaz eta antzeko finezia kontzeptualez sakontzeko garaia, gizartearen hainbat problema estrukturali soluzio ausartak bilatzeko ordua baizik. *Konpondu* egin behar ziren gauzak: eztabaidatu, negoziatu, adostu eta konponbidean jarri. Berrogeizero luzeak berekin ekarritako transformazio demografiko, ekonotekniko eta soziokultural sakonen ildotik euskal herriek bizi izandako mintzaldaketari oihartzun ozeneko irtenbide duina bilatu behar zitzaion, konponbide horren barnean. Guztion (ahalik eta gehienon) artean adosturiko irtenbidea aurkitu behar zen. Ordura arte eraikitako *statu quo*-ari alferrikako minik eragingo ez zion irtenbidea; kalte larria jasandako euskal konstelazio soziokulturalari bere nortasun-ezaugarriak aitortu eta, behar adina autorregulatzeko ahalmena segurtatuz, itxaropen-leihoaz zabalduko ziona halere. Argitu egin behar zen, horretarako, nondik gentozen, non geunden eta, elkarren eskutik, nora irits gintezkeen. Ez nora joan nahi genuen, horretan ez baitzegoen adostasun irmorik. Baina bai elkar hartuz nora iristeko prest geunden. Hori zen aldi berriaren marka. Politikak (edo, nahiago bada, politikarako espazio konpartitu baten beharrak) lehentasun osoa eskuratu zuen garai berri hartan.

Alderdi politikoak, zaharrak eta berriak, egun-argitara atera zitzaizkigun. Autonomia-proiektu posibleak kaleratu ziren (adib. *Kimu Berri taldea*, 1976). Euskal herriaren etorkizunerako aukera-ahalmenak eta gogo-beharrak ordura arte ez bezalako seriotasunez analizatzen saiatu zen zenbait luma-gizon (Azaola: 1972-76). Inork ez zuen dudarik egiten, euskarak eta euskal kulturak *bere lekua* beharko zutela etorkizun hurbilean. *Zer leku, ordea?*

Euskaltzaindiak³⁴, Lankide Aurrezkiak, Jakin taldeak³⁵ eta hanhemengo buru-langile famatuenek aparteko eragina izan zuten, hartarako gogoeta-lanean eta bideberritze-saioan. “Han”goak baino gehiago izan ziren, dena den, “hemen”goak: sektore oso batek (zuhurtziaz, beldu-

rraz edota noraezko sentieraz) lehen lerrotik bigarren ilarara (edo are izkutuagoko *Hintergrund* batera) erretiratu nahiago izan zuen izan ere. Euskaltzale-munduak “bere ordua” zela ulertu zuen eta, denbora galdu gabe, egokia zirudien gizarte-ikuspegia kaleratzen saiatu zen. Euskarak, euskal kulturak baino askoz nabarmenago, aparteko ardatz-izaera agertu zuen ikuspegi berri hartan. Perspektiba soziohistorikoari aspaldi ez bezalako lekua aitortu zitzaion, hizkuntzaren gizarte-dimentsioa planteatzeko orduan. Une hartako egoera demolinguistikoa, hizkuntza-jarrerak eta plangintza jakinetarako abiaburu zenbait, orobat, berariaz landu eta zehaztu ziren. Han agertu zen, plazaren erdian, SIADECO. Berak idatzi ez bazuen ere, berea da neurri batean, Euskaltzaindiarekin batera, *Euskararen Liburu Zuria*.

Txepetxek abiatutako gogoeta-bidearen ildotik, baina ikuspegi sozio-demografikoari aparteko lekua eskainiz, plazaratuak ditugu SIADECO-ren handik gutxirako lan erraldoiak: *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara* (1978ko urria), *Hizkuntza Borroka Euskal herrian* (1979) eta, aurreko langintza osoaren konkrezio espazial eta garapen metodologiko moduan, *Gipuzkoako Lurraldean euskararen normalizaziorako plangintzaren lehen urratsak* (aurreko urteetan presaturik 1983ko abenduan kaleratua). SIADECO diogunean ezin alde batera utz daiteke aditu biren aparteko ekarpena: Maria Jose Azurmendiren aholkularitzazko partaidetza zientifiko-teknikoa batetik eta bestetik, oso bereziki, Iñaki Larrañagaren urteetako lan zabal, jarrai eta egituratua. Iñakiren parte-hartze hura gabe ez dago, nire ustez, SIADECOren epealdi hartako langintza soziolinguistikoa, zenbaitetan pre- edo parainstituzionala, ulertzerik eta behar den bezala baloratzerik. SIADECOren lanak, 1977koa eta 1978koa bereziki, garrantzi handikoak izan ziren, ene ustez, 1982ra arteko epean. Ezertan hasi nahi zuen agintariak, idazleak edo kritikoa nekez alde batera utz zezakeen gogoeta-lan eta datu-biltze hura.

Azterbide deskriptiboa, zinetikoa, dinamikoa eta preskriptiboa zein bere atalean lantzen ahalegindu zen soziologo legazpiarra. Azterketa-dimentsioei dagokienez, berriz, erabilera (eta, horren barruan erabilera-kuantifikazioa) izan zen I. Larrañagaren xede nagusietako bat. Xedea ez ezik, (lehen hurbilketa) lorpen ukazina ere bai. Kuantifikazio-lan horrek tipifikatze-lana eskatzen zuen aurrenik, eta aurrean hori nekez egin zitekeen buruan konstruktua kualitatibo argirik izan gabe³⁶. Bataren eta bestearen elkar-hartzea ondo antzeman zen, esate baterako, euskararen familia bidezko transmisio-prozesua analizatzeko erabili zuen formulazioan (SIADECO, 1979: 83-98). Erabilera azterketa zabalaz gainera berariaz landu zituen Larrañagak hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-jarreraren mundua. Hizkuntza-gaitasunaren sailean, orain ere eguneroko lehengai ditugun gaitasun-elementuak konponentzializari eman zituen batetik, eta, bestetik ingurumen-baldintzen arabera sailkatu. Oinarri teoriko-praktikoen bateratze-saioa izan zen berea, hainbatean.

Ingurutik aurrera eskaini izan digun denbora, burukantsazio, esfortzu animiko, sortze-ahalmen eta begirunezko jarrera kritikoagatik. Egin dezakegun okerrena, jakina, berak esandako guztiak itsu-itsuan hartzea da.

Diglosiarenean, eskuera z kanpoko lurraldetasun zabal-lausoarenean bezala, baditugu motiboak gauzak berrikusteko. Ez dut uste Txepetx bera haserre izango genukeenik horrekin.

*Euskaltzale-munduak
"bere ordua" zela ulertu
zuen eta, denbora galdu
gabe, egokia zirudien
gizarte-ikuspegia
kaleratzen saiatu zen.
Euskarak, euskal kulturak
baino askoz
nabarmenago, aparteko
ardatz-izaera agertu zuen
ikuspegi berritu hartan.
Perspektiba
soziohistorikoari aspaldi
ez bezalako lekua aitortu
zitzaien, hizkuntzaren
gizarte-dimentsioa
planteatzeko orduan.*

Bistan da beti ez zuela asmatu. Presaren marka-seinalea berekin du, hasteko, orduko lan haietako zenbaitek: normalean erdaraz idatzitako testu orijinalen aurkezpen eta egituratze ilun samarrak³⁷ eta itzulpen nola-halakoak³⁸ trataera hobea izango zuketean, seguruenik, denbora gehiago izan balitz eskueran. Terminologia teknikoak, azterbide dinamikoan eta iritzi-jarreraren deskribapenean bereziki, elementu baloratibo mingarriaz bete samarrak egoteak ez ziren, bestalde, mesede handirik egin aztersaio haiei³⁹. Bere hutsegiteen atalean ditu horiek guztiak. Panorama berria eta baliagarria zabaldu zuen ordea, gure gizartean, urte gutxitako langintza zabal hark. Gerora garapen zabalaren duten azterketa sozio-linguistiko askoren ernamun gertatu ziren lan haiek. Ez da hori nola-nahiko ezaugarria.

Euskararen ibilera historikoa azaltzea, bere azkenaldiko egoera argitzea eta aurrera begirako status-oinarria sendotzea zuten SIADECOren lan haiek guztiek helmuga. Horretan bakarrik ez zen ordea, urte haietan, gure artean lan egin. Hirurogeiko hamarkadan indar berriz osatutako ekimenak (Baionakoak 1964an, Arantzazukoak 1968an) lehen planora ekarri zuen euskararen batasuna⁴⁰. Batasun-falta azpimarratu zen lehenik, haren beharra edo komenentzia gero eta, azkenik, hizkuntza-eredu bateratu berriaren osaera bera eztabaidatu zen. Ortografia izan zen lehen pausoa, eta morfologia bigarrena⁴¹. Modernizazio terminologikoaren esparruari ere bete-bete heldu zitzaion, azkenik. Saio gehienetan, adostasuna bezain nabarmen agertu zen desadostasun-talka: *h* letraren banderapean ortografian, UZEIren jokaera extranormatiboegian terminologia-sailean,.. Oro har 1970eko hamarkada, diglosiarena eta antzeko kontzeptu abstraktuena baino areago, "euskararen batasuna bai/ez" eta "nolako batasuna?"-ren aldia izan zen, gizarte-giro zabalean⁴². Koldo Mitxelena, Larresoro-Txillardegia eta Luis Villasante punta-puntako erreferenteak izan genituen garai hartan, corpus-plangintzaren hainbat alorretan. Aldiz atzerriko adituen itzala, kontrakoa balirudike ere, hizkuntza-soziologia soziozentrikoaren kasuan baino askoz ahulago agertu zen corpus-plangintzako saio haietan⁴³.

5. AGINTARITZA BERRIAREN UZTA: 1982-1990

Pasa zen garai hura ere eta, Konstituzioaren, Autonomia Estatutuaren eta Amejoramentu Legearen eskutik, berariazko agintaritza (berr)eskuratu zuen Espainialdeko Euskal herriak. Aginte horren bidezko hizkuntza-politika(k) ezartzeko eta hizkuntza-plangintza konkretua(k) aplikatzen hasteko aldia iritsi zen. Euskararen Erabilera Normaltzeko 1982ko Legeak⁴⁴ mugari argia ezarri zuen, dudarik gabe, egin behar horretan. McRae-ren 1975eko "the principle of territoriality and the principle of personality in multilingual states" famatuak aplikazio zehatza izan zuen, hizkuntza-eskubideen norbanako irizpidea hartuz gidari⁴⁵. Konkretuki, Txepetx-

ek bere "lurralde-teoria"ren arabera (1986: 30-1) planteatzen zituen bi irtenbide bere ustez itxurazkoetatik nabarmen aldentzen zena⁴⁶. Gauza bat zen ordea EEN legea, Autonomia Erkidego osoaren handik aurrerako jarduera-marko nagusia ezarri behar zuena, eta bestea hizkuntza-politika, herri-aginteez egunero aplikatu beharrekoa⁴⁷. Euskararen Aholku Batzordea eratu zuen Jaurlaritzak politika horren ildo nagusia argitzen saiatzeko. Haren lehen fruitua, 1983an, Euskararen Politikarako Oinarriak izeneko liburuxka izan zen. Hizkuntza Plangintzaren alorrean Inplementazio fasea esaten dena bideratzen saiatu zen agintea, bereziki: irakasteredu elebidunen bidezko euskal irakaskuntza formalaren hedapena, beheko mailetatik hasiz unibertsitaterainokoa, HABE, Euskal Irrati-Telebista, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza (gero Zuzendaritza eta orain Sailburuordetza). Hizkuntza-soziologiaren perspektiba teorikotik gehiegi ez aldentzeko, alde batera utziko dut gaurkoan atal horren deskribapena eta balorazioa⁴⁸. Instituzio sorberrietatik, batez ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetatik, aparteko saioa egin izan da demolin-guistikaren alorrean eta belaunetz belauneko irabazi-galeren azterketa sistematizatu, kontrastagarri eta, hainbat kasutan, iteratiboan. Adibide eza-gun bi baizik ez aipatzearren gogoratu Xabier Aizpuruaren 1995eko lana, euskararen jarraipenaz, eta Jon Aizpuruaren 2006ko ikerketa, euskararen erabileraz eta transmisioaz. Esan gabe ezin utzi liteke, azkenik, une bate-tik aurrera instituzio-bidetik alde batera gelditu zela ordura arte gogoeta eta aplikazio-lanean jardundako hainbat eragile⁴⁹.

6. ZER IRABAZI DA, IBILI HONETAN?

Labur-labur jardungo dut honetaz, dagoeneko luzeegi nabilenez. Ezagutza teknikoan eta emaitzen zehaztasunean irabazi egin da batetik, gure prestaera profesionalak hobera egin du bestetik, belaunaldi gazte(ago)aren prestaera akademikoa bideratzen ari gara hurrenik, gogoeta-lanaren sostengu izan litezkeen instantzia materialak sortzen hasi dira eta, azkenik baina ez azken, harreman-giroak hobera egin du.

a) *Ezagutza teknikoan eta emaitzen zehaztasunean irabazi* dena honela laburtuko nuke, lau hitzetan esateko:

- Hizkuntza-soziologiaren analisirako metodoetan, tekniketan eta *know how* operatiboan aurrera egin da, dudarik gabe: ikus, adibidez, Olatz Altunaren 2002ko artikulua erabileraren kale-neurketaz edota Patxi Juaristiren 2003ko ekarpena, gizarte-ikerketarako teknikez.
- Xede-talde jakinen, adibidez gazte-jendearen mintzajardunari lehen ez bezalako begiratu zehatza, pausatua eta argigarria ematen ikasi dugu. Aurrerapen ohargarria da hori ere. Ikus, orientazio autonomoko ikerlerro bi baizik ez aipatzearren, Pello Jauregi (2003) eta Kike Amonarriz (2008).

SIADeco diogunean ezin alde batera utz daiteke aditu biren aparteko ekarpena: Maria Jose Azurmendiren aholkularitzazko partaidetza zientifiko-teknikoa batetik eta bestetik, oso bereziki, Iñaki Larrañagaren urteetako lan zabal, jarrai eta egituratua. Iñakiren parte-hartze hura gabe ez dago, nire ustez.

*Erabileraren azterketa
zabalaz gainera berariaz
landu zituen Larrañagak
hizkuntza-gaitasuna eta
hizkuntza-jarreraren
mundua.*

- Hitzunek (aurrez aurreko talde txiki edo ertainetan) hizkuntza bat ala beste aukeratzera eramaten dituzten elementuen (praktikan, aldakortasun hori hobekien iragartzen duten elementuen) identifikazio-lanean aurrera egin da. Formulazio probabilistiko basikoetatik hasita (“Txillardegi”, 1984) erregresio anizkoitzeko tekniketara pasa gara (Klusterria, adibidez, *Arrue* ikerketan). Eta
- Teorizazio-ahalegin sendoak egin dira zenbait alorretan: Psikosoziolinguistikan adibidez (Maria Jose Azurmendi, 1999). Hainbatera iritsi gabe, baina hizkuntza-soziologiaren muinera hurbilduz, kontuan hartzeko da Soziolinguistika Eskuliburua (Zarraga et al, 2010).

b) *Gure prestaera profesionalak hobera egin du.* Oso hutsetik hasi ginen 1970 inguruan, beharizan konkretu-hurbilen handiak eta larriak erabat txunditzen eta, aldi berean, erakartzen gintuelarik. *Egitea* zen giltzarria: ondo ala gaizki (hori gero ikusiko genuen), baina *egin* egin behar zen. Ahuldutako hiztun-herri europar gutxiren pareko aktibismoan murgildu ginen horrela. Aktibismoaren birtuteak ez dira gutxiestekoak (gogoratu Mitxelenaren 1977ko aitorten harridurazkoa). Egiaren erdia besterik ez da hori, ordea: aktibismo hutsaz hizkuntza-soziologiak ezin egin dezake aurrera, jakintza-sail moduan. Eta jakintza ez bada, zer arraio da, bada, gure jarduera-esparru hau?.

“Lehendabizi egin, ondo ala gaizki, eta gero ikusiko da” leloari alternatiba orekatuagoak hasi gara bilatzen, urteen joanean. Besteak beste, nork geure burua prestatzeari dagokionez. Asko aurreratu da azken mende-laurdenean, gure prestaera profesionalean. Batetik, eta bazen ordua, gure aurreko belaunaldiak euskara indarberritzeko (edota, gutxien-gutxienez, bizirik gordetzeko) landu izan dituzten formulazio jeneralak, etxeratu izan dituzten paradigma soziologiko, kultural eta politiko-operatiboak eta ibilian-ibilian eskuratu izan dituzten lorpenak ikertzen, edota gutxienez hurbiletik ezagutzen, hasi gara: hori oso da inportantea⁵⁰. Bestetik, gure gizartean (konkretuki, mintzajardunaren giza arteko moldaeran) orain bertan zer gertatzen ari den, nola eta zergatik, analizatzeko orduan lehen baino azterbide sendoagoz baliatzen hasi gara, eta formulazio partisanoeetatik alde egiten ikasi dugu hainbatean⁵¹. Atzerriarekiko harreman akademikoak lagungarri izan ditugu, seguruenik, aurrerabide horretan. Neure buruaz oroitzen naizelarik 1980tik honakoak ditugu eza-gun, bibliografiaz gainera harreman pertsonalaz (harreman iraunkor-handiaz edo aldi batekoaz) J. A. Fishman, Ch. A. Ferguson, W. F. Mackey, A. Tabouret-Keller, W. Lambert, H. Baetens Beardsmore, R. Bourhis, R. Cooper, J. Cobarrubias, B. Spolsky, B. Jernudd, T. Skuttnab-Kangas, J. Cummins, F. Genesee, F. Grin, G. Kremnitz, U. Ammon, C. Baker, eta beste asko. Espainiako beste hiztun-herri txi-

ki-ahulduetako espezialistekin, katalan-herrietakoen eta gailegoekin bereziki, lotura sendo eta ugariak eratu izan ditugu orobat. Hizkuntza-soziologiaren alorreko adituen arteko harreman-sareak ere sortu ditugu: batzuk aspalditxo (cf. Iruñean sortua) eta besteak hain aspaldi ez dela (*Mercator* tartean). Era honetako aurrerabidearen martxa aski motela da: ezin sinetsizko motela zenbaitetan, eta atzera-martxarik ere falta ez duena inoiz edo behin. Batez besteko joera aurrezko da ordea. Aurrerapen nabarmena da hori guztia.

c) *Belaumaldi gazte(ago)aren prestaera akademikoa bideratzen ari gara: lehen baino* aukera zabalagoak daude gaur egun, Euskal herrian, hizkuntza-soziologian espezializatu nahi duten gazteek oinarri teoriko eta informazio enpiriko sendo samarraz hornitzeko: askoz gehiago egin liteke, bistan da, baina egiten dena ez da gutxiestekoa. Kurtsoak eta espezialitateak, gradu ondoko ikastaroak (*HIZNET*, adibidez) barne, ikastaroak eta jardunaldiak, baita hizkuntza-soziologia etnokulturazko osagaietan txertatzeko formulazio berriak ere (kultura-transmisioaren alorrean adibidez, hor daude UMren berariazko ikaslerroa eta, lehenagotik, IRALeren R600 ikastaroa, curriculumaren euskal dimentsioaz diharduena). Prestaera-aukera horien emaitzak ez dira gutxiestekoak: batetik doktore-tesiak, ikasle-txostenak eta han-hemengo argitalpenak, bestetik lan-talde jakinen (irakasleen, hizkuntza-normalkuntzaren alorreko ekipo tekniko-en) prestaera espezifikoak.

d) *Gogoeta-lanaren sostengu izan litezkeen instantzia materialak hasi dira sortzen*. Hor sartzen dira bete-betean, zein bere neurrian, *Soziolinguistika Klusterra* eta BAT aldizkaria, Horiek ere kontuan hartzeko aurrerapausoak dira. Behetik gorako euskalgintza jakinaren emari diren neurrian jarduera-molde parainstituzionalaren orbitakoak izatearen marka ezin kendu izango dute erraz kopetatik. Eguneroko lanak erakusten du ordea, horretan ere, nor nor den eta zertan ari den. Xepelarrek esan bezala “sutan jartzean jakiten baita / nolakoa den eltzea”. Beren muga handiekin (eta baliabide ekonomikoen murriztasuna ez da, orain eta begien bistako etorkizunean, guztietan txikiena) estimatzeko eta gogoan izateko ikersaioak eta gogoeta-aukerak eskaintzen ari dira. Eta

e) *Harreman-giroak hobera egin du*, esparru horretan lanean dihardugunon artean. Urteetan, euskalgintza osoaren (eta, horren barnean, euskal hizkuntza-soziologiaren) ezaugarri nagusietako bat barne-tirabira giroa izan da. Bai plano teorikoan antzeman izan da hori, eta bai bere aplikazio-esparru den hizkuntza-plangintzan. Akordatu garai bateko HABE-AEK kontuak, gaur nekez ulertzekoak baina orduan oihartzun zabalekoak, edota irakasteredu elebidunen inguruan entzun eta irakurri behar izaten diren sinplekeria neurrigabeak, hizkuntza-soziologiaren emaitza ezagun sendoenekin⁵² funts-funtse-

Terminologia teknikoa, azterbide dinamikoan eta iritzi-jarreraren deskribapenean bereziki, elementu baloratibo mingarriz bete samarrik egoteak ez zien, bestalde, mesede handirik egin aztersaio haiei.

*Hizkuntza-eredu bateratu
berriaren osaera bera
eztabaidatu zen.
Ortografia izan zen lehen
pausoa, eta morfologia
bigarrena. Modernizazio
terminologikoaren
esparruari ere bete-betean
heldu zitzaion, azkenik.*

an bateraezinak. Gogoratu orobat, eta *ad hominem*-eko planora hurbilduz, euskarazko egunkaria sortu aurreko tirabirak (ik. adibidez, Aranburu eta al).

Bazen ordua, garai bateko eztabaidak alde batera utzirik gure arteko diferentziak (sakonak, benetakoak eta ezinbestekoak) gizalage hobez eta patxada handixeagoaz bideratzen ikasteko. Kostatu da, eta ez gutxi, eguna joan eta eguna etorri hizkuntza-soziologiaren esparru teorikoan eta bere aplikazio praktikoen alorrean ari garenok elkarrekiko errespetua eta begirunea aurren-aurreneko baldintza dela ikastea⁵³. Baina lortu da, neurri on batean: gure arteko harreman-giroak hobera egin du. (*ad hominem* ere).

7. ZER DAGO EGINKIZUN?⁵⁴

Gauza asko dago, bistan da, eginkizun. Guztien artean bakar bat azpimarratzea gustatuko litzaidake. Badakit gaia aipatze hutsaz kopeta zimurtuko didala batek baino gehiagok, han-hemen. Aipatzea merezi duelakoan nago, halere. *Ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko saioen inguruko gogoeta-etea falta da*. Funtsezko galdera batzuei ganoraz erantzun ahal izateko, “hurrengo asterako” presaren itolarria gabe lan egin ahal izango duen *Clearing house* moduko bat. Etxe horren falta-gabeziak sortu eta sortzen duen desoreka erabatekoa da. Ez dago konparaziorik, batetik hizkuntza indarberritzeko gure saioetan eta bestetik langintza horri buruzko gogoeta-lan teorikoan eralgitzen ditugun baliabideen artean. Ez dago konparaziorik kopuruz eta ez, agian, kalitatez. Bere muga eta eskasia guztiekin ere baliabide material, ekonomiko, antolamenduzko eta gizajendezko ugari aplikatu da mende-laurden luzean, euskara indarberritzeko saioetan. Metafora baten laguntzaz, demagun animalia baten gorputza direla ekintza praktikoetan eralgitzen ditugun baliabideak, eta gogoeta-lanean eralgitzen ditugunak animalia horren burua. Gauzak horrela planteaturik, txantxangorri-burua duen elefantea dugu egungo euskalgintza. Aspalditik dator desoreka hori. Gogoan dut Joshua Fishman-ek, orain dela ia hogeita bost urte, hitzez eta idatziz zer gomendatu zigun, “Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikan zer hobetuko zenuke?” galdetu geniolarik. Orduko paperak ez dut uste galdu direnik eta, okerreanean ere, entzule izandakook bizirik gaude.

Zergatik ez zaio desoreka nabarmen horri itxurazko erremediorik jarri? Erantzunak, erantzun beteak, atal bat baino gehiago litzuzke seguruena. Ondoko hiru elementuok, bederen, gogoan izango nituzke nik:

a) Batetik, hor dago muga pertsonal-biografikoen arazo serioa: non zeuden gure artean orduan (eta non daude gaur ere, zinez eta benaz ari bagara) funtsezko galdera horientzako erantzunak bilatu, landu eta, zientzia-arauz, munduko bibliografia teknikoaren argitan eta

gure gizarte-moldaera bihurriaren ezaguera sakonaz, taxuz aurkeztu zi/ditzaketen adituak? Ezin esango dugu, geure buruak askietsiz, arazo hori benetakoa ez zenik eta ez denik. Ikusi besterik ez dago: euskal hizkuntza-soziologiak bere bidea egin du azken berrogei urtean (eta horri eskerrak halako heldutasun-maila batera iristen ari da zenbait alorretan), baina baita hanka-sartze monumentalik ere. Hasiko al gara paper zaharrak astintzen eta nork (izen-apellidoz, erakunde edo elkarre baten izenpean edo izengoitiz) zer esaten zuen begiratzen?. Hanka-sartze horien eragileen artean, dudarik gabe, distortsio ideologikoarena izan da bat. Ideologiazko distortsioak arrasto sakona utzi du, aitorzea gustatu ala ez, gure jardunean. Beti ez da izan, ordea, distortsio ideologikoaren errua: muga-arazo pertsonal-biografiko larririk genuen sarri, esku artean, ideologiazko distortsio-arrisku horren aurretik eta horren gainetik. Aditurik ez genuen, beharrezko neurrian eta graduan, horrelako gogoeta-lan egituratu eta iraunkorra taxuz bideratzeko. Aditu horiek gabe, nolatan ganorazko lanik sortu eta gizarteratu?

b) Beti ez da ordea giza baliabideen eskasia edo gabezia izan, gogoeta-lan horren freno-muga bakarra. Hartarako aditurik bazegoen ala ez aztertu gabe (eta, ez bazegoen, aditu horiek eratzeko bideak zabaldu ordez) uzkur agertu izan da agente-esparrua, behin baino gehiagotan, *Clearing house* bat eratzeko asmoaren aurrean. Ez da inolako sekretu, uzkur egote horren argudio-bide nagusia lautatik hirutan zein izan den: “zer egin behar dugu gero, *Clearing house* horrek planteatzen duena *hemen eta orain* aplikaezina baldin bada edota, aplikatzeko modukoa izanik ere, agintariok ezarriak ditugun lehentasun soziopolitiko, ekonotekniko, demografiko eta soziokulturalekin kontraesan bizian baldin badator?”. Galdera ez da batere inozoa. Lehiaketa demokratikoz agintera iritsi denak obligazio hertsia du, eskubide osoaz gainera, ezer erabaki aurretik bere buruari galdera hori eta gehiago egiteko.

c) Freno bakarra ez da, halere, uzkurtasun hori izan. Besterik entzun ohi bada ere sarri gure mundutxoan, ez da beti agintarien eskua izan gogoeta-lan egituratu hori aparkatu edo alboratu duena. Bestelako interesik ere izan da tartean, *Clearing house* delakoaren asmoa zapuztu duenik. Lehiakide posibleen errezelozko edo kalte-ustezko jokabidea, bereziki. “Egitekotan, nik!” izan da halakoan, dakidan neurrian, aldian aldiko lehiakidearen oihu ozena. Ondorioa begien bistan dugu: inork ez. Egunen batean lasaiago hitz egin ahal izango da, seguruenik, horretaz eta hartaz.

Gauza bat da, nolana ere, kontuan hartu beharrekoa: ahuldutako hizkuntza indarberritzeari dagokionez planteatu ere gabe dago funtsezko galdera bat baino gehiago. Honako hauek, adibidez: a) Ba al dago horrelakoetan, gizakion gaixotasun kontuetan bezala, *point of no return* modukorik? Non dago hori, egotekotan, eta zer neurritan da itzulezina?

Esan gabe ezin utzi liteke, azkenik, une batetik aurrera instituzio-bidetik alde batera gelditu zela ordura arte gogoeta eta aplikazio-lanean jardundako hainbat eragile.

Ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko saioen inguruko gogoeta-etxea falta da. Funtsezko galdera batzuei ganoraz erantzun ahal izateko, "hurrengo asterako" presaren itolarria gabe lan egin ahal izango duen Clearing house moduko bat. Etxe horren falta-gabeziak sortu eta sortzen duen desoreka erabatekoa da.

b) *Lehentasan-irizpideak*: ahuldutako hizkuntza indarberritzeko alorrean zein dira funtsean, aldian aldiko aldakuntza soziopolitiko, demografiko eta ekonoteknikoak gorabehera, hoguei bat urtera begira huts egiteko beldur handiegirik planteatu gabe ezar litezkeen lehentasan-irizpideak? c) Hizkuntza handien (gaztelania- frantsesen, ingelesaren...) eta euskararen arteko bizikidetzeta zein ardatz nagusiren jirabiran antola liteke liskar-giroa baretzeko eta hizkuntza ahularen kaltegarri izango ez den *modus vivendi* luze-asmozkoa⁵⁵ eratzeko? d) Hizkuntza-eskubideen norbanako eskubidean oinarritzen den oraingo moldaera elebidunak ba al du alternatiba hoberik, perspektiba jurilinguistikotik eta, bereziki, mintzajardunaren gizarte-moldaera arrunt, egunerokoak eskatzen duen oinarri fisikotik?

Zerrenda ez litzateke, zenbaitek besterik uste izan badezake ere, ezin bestean luzea. Garrantzitsua, gai zentral horietan sakontzea da. Urteetako espezializaio-lana da hori. Xaltoka eta brinkoka nekez argituko ditugu, hasi berria dugun mende honetan, euskal konstelazio soziokulturalak oro har (eta bere zati, adierazpide eta ikur den hizkuntza honek bereziki) bizirik gordetzeko eta garapen-itzaropenik izateko giltzarriak.

Xabier Lete handiak izarren hauts artean esan ohi zigunez, "gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia, burruka hortan bizi da eta hori du bere egia. Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu, jakintza eta argia". Amets horren emari da, beste askoren artean, hizkuntza-soziologia ere. Bere ibilia egin du BAT aldizkariak, bilatzaile nekagaitz gisa. Luzaz, eta oparo, mintzajardunaren giza arteko moldaerari buruzko jakintza bila dezan desio diot nik ere.■

BIBLIOGRAFIA

- Agirre, Joseba Mirena "Lizardi", 1934: *Itz-lauz*. Donostiako Edili etxeak 1972an berrargitaratua.
- Aizpurua, Jon, 2006: "Euskararen erabilera eta transmisioa", in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 60.
- Aizpurua, Xabier, 1995: *Euskararen jarraipena. La continuidad del euskera. La continuité de la langue basque*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Aleman, Rafael (ed.), 1988: *Els processos de normalització lingüística a l'Estat Espanyol actual*. Alicante-Benidorm: Universitat de Alacant.
- Altube, Seber, 1933-35: "Sobre la Vida del Euskera" eta "Más sobre la Vida del Euskera", in *Euskera*, 1933-35.
- Altuna, Olatz, 2002: "Erabileraren kale-neurketa. Ibilbidea eta metodologia", in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 43.
- Alvarez Enparantza, Jose Luis "Txillardegui", 1984: *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa*. Iruñea: UEU.
- Amonarriz, Kike, 2008: "Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea", in *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, 2008-09 ikasturtea*. Asmoz Fundazioa. Eusko Ikaskuntza.

- Aracil, Lluís Vicent, 1965: *Conflit linguistique et normalisation linguistique dans l'Europe nouvelle*. Nancy: Centre Universitaire Européen. Katalanezko bertsoia, 1983koa, "Conflicte lingüístic i normalització lingüística a l'Europa nova", in *Dir la realitat*. Bartzelona. Edicions dels Països Catalans.
- 1966: "Un dilema valencià" in *Identity*. Cambridge, Mass.
- Arana, Sabino, 1896: *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*. Bilbo: Tipografía Amorrortu.
- Aranburu, Antton et al. 1990: *Euskarazko Egunkaria*.
- Ariztimuño, José de, "Aitzol", 1935: *Lucha de Idiomas en Euzkadi y en Europa*, Donostia. Erabilitako iturria: *Idazlan Guztiak*. Donostia: Erein, 1988.
- Arregi, Rikardo, 1968: "Gu traketsok", in *Anaitasuna*, 1968-V-15. Erabilitako iturria: *Herriaren lekuko*. J. M. Torrealdei prestatzaile, 1972. Arantzazu-Oñati: Jakin.
- Azaola, José Miguel de, 1972: *Vasconia y su destino*. Madrid: Edic. Revista de Occidente.
- Azkue, R. M., 1896: *Proyecto de ortografía, sometido a la censura de los que se dedican a cultivar el euskera*. Bilbao: Muller y Zavaleta.
- Azurmendi, Maria Jose, 1999: *Psicosociolingüística*. Leioa: EHU.
- Bachoc, Erramun, 2008. *Euskararen egoera Ipar Euskal herrian*. Euskararen Erakunde Publikoak eskatutako azterketa-lana. Argitaratu gabea.
- Baker, Colin eta Sylvia Prys Jones, 1998: *Encyclopedia of Bilingualism and Bilingual Education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Bright, William (ed.), 1966: *Sociolinguistics; Proceedings of the UCLA Sociolinguistics Conference, 1964*. The Hague: Mouton.
- Cooper, Robert L., 1990: *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Erize, Xabier, 1998: *Nafarroako euskararen historia soziolingüistikoa (1863-1936)*. Iruña: Nafarroako Gobernua. Hizkuntza Politika Departamentua.
- 2001: "El discurso contrario a la "normalización" de la lengua en Navarra", in *RIEV*, 46, 2, 661-682.
- Euskaltzaindia-Siadeco, 1977: *Euskararen Liburu Zuria* (erdal bertsoia, orijinala, *El Libro Blanco del Euskara*). Bilbo: Euskaltzaindia-Siadeco.
- Euskararen Aholku Batzordea, 1983: *Euskararen Politikarako Oinarriak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco 1991: *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera*. Gasteiz, Eusko Legebiltzarra.
- Ferguson, Charles A., 1959: "Diglossia", in *Word*, XV, 325-50.
- Fishman, Joshua A., Fishman, Joshua A. 1964: "Language maintenance and language shift as a field of inquiry", in *Linguistics* 9: 32-70.
- 1967: "Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism", in *Journal of Social Issues*, 23 (2), 29-38.
- 1968: "A Sociolinguistic Perspective on the Study of Bilingualism", in *Linguistics*, 39. zkia., 21-49 or.

Batetik non zeuden gure artean orduan (eta non daude gaur ere, zinez eta benaz ari bagara) funtsezko galdera horientzako erantzunak bilatu, landu eta, zientzia-arauz, munduko bibliografia teknikoaren argitan eta gure gizarte-moldaera bihurriaren ezaguera sakonaz, taxuz aurkeztu ziditezaketen adituak?

Hanka-sartze horien eragileen artean, dudarik gabe, distortsio ideologikoa izan da bat. Ideologiazko distortsioak arrasto sakona utzi du, aitortzea gustatu ala ez, gure jardunean.

- 1972: *The Sociology of Language. An Interdisciplinary Social Science Approach to the Study of Language and Society*. Rowley: Newbury House.
- 1973: *Language and Nationalism. Two Integrative Essays*. Rowley, Massachusetts, Newbury House.
- 1980: "Bilingualism and biculturalism as individual and as societal phenomena", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, vol 1, 3-15. Erabilitako iturria Fishman, 1989: 181-201).
- 1987: *Ideology, society and language. The Odyssey of Nathan Birnbaum*. Ann Arbor: Kasoma Publishers.
- 1989: *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*. Clevedon-Philadelphia: Multilingual Matters.
- 1991a: *Reversing language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 1991b: "Limitations on School Effectiveness in connection with Mother Tongue Transmission", in *Reversing Language Shift* (368-80 or.).
- 1993: *The Earliest Stage of Language Planning. The "First Congress Phenomenon"*. Berlin, Mouton de Gruyter.
- Fishman, Joshua A. et al, 1966: *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton
- 1985: *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Amsterdam: Mouton de Gruyter.
- Garvin, Paul L., 1954: "Literacy as a Problem in language and culture", in *Georgetown University Monograph Series on Language and Linguistics*, 7, 117-29 or.
- 1959: "The standard language problem. Concepts and methods", in *Anthropological Linguistics* 1: 3, 28-31 or.
- Gizarte Azterketarako Lantaldea, 1983: *Euskararen Borroka: oinarritzko inkesta bat: ezagutza, erabilera eta jarrerak*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (erdal bertsioa, jatorrizkoa, *La Lucha del Euskara*).
- Goebel, Hans, 1996: *Kontaktlinguistik: ein internationales Handbuch zeitgenössischer Forschung*. Berlin: New York: De Gruyter.
- Gumperz, John J., 1962: "Types of linguistic communities", in *Anthropological Linguistics* 4: 3, 28-40 or.
- 1964: "Linguistics and Social Interaction in two Communities", in *American Anthropologist*, LXVI, 2, 137-53.
- Halliday, M. A. K., 1973: *Explorations in the Functions of Language*. London: Edward Arnold..
- Haugen, Einar, 1966: *Language Planning and Language Conflict. The Case of Modern Norwegian*. Cambridge, Mass.: Harvard.
- Havranek, Bohumil, 1938: "Zum Problem der Norm in der heutigen Sprachwissenschaft und Sprachkultur", in *Actes du Quatrième Congrès International de Linguistes (Copenhague)*, 151-6 or.
- 1964: "The Functional Differentiation of the Standard Language", in Paul L. Garvin (ed.), 1-18.

- Holmes, Janet, 1992: *An Introduction to Sociolinguistics*. London eta New York: Longman.
- Hudson, Alan, 2003: "Toward a Systematic Study of Diglossia", in Paulston, Christina Bratt eta G. Richard Tucker, (ed.), *Sociolinguistics. The essential readings*, 367-76.
- Jauregi, Pello 2003: *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)*. Hizkuntzazko joko-erak. Lasarte-Oriako udala.
- Jernudd, Björn eta Michel J. Shapiro (ed.), 1989: *The Politics of Purism*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter
- Juaristi, Patxi, 2003: *Gizarte Ikerketarako teknikak*. Bilbo: EHU.
- Kaplan & Baldauf, 1997. *Language Planning, from practice to theory*. Clevedon. Multilingual Matters.
- Kimu Berri taldea, 1976: *Euskal Autonomi Estatutu Berrirako Aurreprojektua. Anteproyecto para un nuevo Estatuto de Autonomia*. Bilbo.
- Kloss, Heinz, 1967: "'Abstand' languages and 'Ausbau' languages", in *Anthropological Linguistics*, IX, vii, 29-41.
- 1969: *Research Possibilities on Group Bilingualism: a Report*, in Quebec: ICRB.
- Larrañaga, Iñaki, 1987: "Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak", in *Jakin* 42/43: 7-29.
- Lete, Xabier, 1971: *Udazkenean*. 1970eko Hernani Saria. Zarautz: Itxaropena.
- 2006: *Abestizak eta poema kantatuak*. Donostia, Elkar.
- 2008: "Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun", in Lourdes Otaegi (ed.) *Juan Mari Lekuona hurbiletik*. Oiartzun: Oiartzungo udala eta Euskaltzaindia.
- Mackey, William F., 1967: *A Description of Bilingualism*. Quebec: URB, Université Laval.
- 1976: *Bilinguisme et Contacte des Langues*. Paris: Klincksieck.
- 1979: *Sociolinguistic Studies in Language Contact: Method and Cases*. The Hague: Mouton.
- McRae 1975: "The principle of territoriality and the principle of personality in multilingual states", in *International Journal of the Sociology of Language*, 4, 33-54.
- 1983, *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Switzerland*. Waterloo: Wilfrid Laurier University Press.
- Mitxelena, Luis: 1972: *Zenbait hitzaldi*. Bilbo: Etor.
- 1977, "El largo y difícil camino del euskara", in *El Libro Blanco del Euskara*. Euskaltzaindia-Siadeco, 15-29.
- 1982: "la normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco", in *Revista de Occidente*, 10-11 zkiak., 55-75.
- Mokoroa, Justo Mari, 1936: *Genio y Lengua*. Tolosa: Mokoroa.
- 1971: *Lengua Vasca de hoy y de mañana. Ocho respuestas al cuestionario de la II Semana de Antropología Vasca*. Donostia: Auñamendi.
- Ninyoles, R. L., 1969: *Conflicte lingüístic valenciá*. Valentzia: Tres i Quatre.
- 1972: *Idioma y poder social*. Madrid: Tecnos.

Hartarako aditurik bazegoen ala ez aztertu gabe uzkur agertu izan da aginte-esparrua, behin baino gehiagotan, Clearing house bat eratzeko asmoaren aurrean.

**Ba al dago horrelakoetan,
gizakion gaixotasun
kontuetan bezala, point
of no return modukorik?
Non dago hori,
egotekotan, eta zer
neurritan da itzulezina?**

- 1975: *Idioma i prejudici*, València, Tres i Quatre.
- 1977: *Cuatro idiomas para un Estado*. Madrid: Editorial Cambio 16.
- Nisbet, John, 1961: "Bilingualism and the school", in *Scottish Gaelic Studies*, vol. X, part. 1. Council for Research in Education, XLVII. London: University of London Press. (Iturria Sánchez Carrión 1974: 24).
- Odriozola, Jose Manuel, 1992: "Koldo Mitxelenaren ekarpena soziolinguistikaren arloan", in *RIEV* 37, 2, 393-420.
- Otaegi, Lurdes 1987: *Lizardiren kazetari-lanak*. Donostia: Erein.
- Paulston, Christina Bratt eta G. Richard Tucker, (ed.), 1997. *The early days of sociolinguistics: memories and reflections*. Publications in Sociolinguistics, 2. Dallas: Summer Institute of Linguistics.
- 2003: *Sociolinguistics. The essential readings*. Malden, Mass.: Blackwell.
- Rubin, Joan, 1968: *National Bilingualism in Paraguay*. The Hague: Mouton.
- Rubin, Joan eta Björn Jernudd (ed.), 1971: *Can Language be Planned?*. Honolulu: The University Press of Hawaii. East-West Center Press.
- Rubin, Joan, Björn Jernudd, J. Das Gupta, Joshua A. Fishman eta Charles A. Ferguson, 1977: *Language Planning Processes*. The Hague: Mouton de Gruyter.
- Ruis de Olabuénaga, Jose Ignacio eta Jose Agustin Ozamiz (ed), 1986: *Hizkuntza Minorizatuen Soziologia / Sociología de Lenguas Minorizadas*. Donostia.
- Ruiz i San Pascual, Francesc, Rosa Sanz i Ribelles, Jordi Solé i Camardons, 2001: *Diccionari de Sociolingüística*. Barcelona: Enciclopèdia Catalana.
- Sánchez Carrión, José María "Txepetx" 1972: *El Estado Actual del Vasconce en la Provincia de Navarra (1970). Factores de Regresión. Relaciones de Bilingüismo*. Pamplona/Iruña: Institución Príncipe de Viana.
- 1974: "Bilingüismo, Disglosía, Contacto de Lenguas. Hacia una delimitación de conceptos", in *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, VIII, 3-79.
- 1980: *Lengua y Pueblo*. Donostia: Elkar
- 1986: "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística", in Ruis de Olabuénaga, Jose Ignacio eta Jose Agustin Ozamiz (ed), 1986: *Hizkuntza Minorizatuen Soziologia / Sociología de Lenguas Minorizadas*, 19-47. Donostia.
- 1987: *Un Futuro para nuestro Pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia.
- 1999: *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: Márgenes de encuentro. Bilbao y el euskara: sistemas modélicos de interpretación, modelos sistémicos de actuación*. Bilbo: Ayuntamiento de Bilbao.
- Schiffman, Harold F., 1996: *Linguistic Culture and Language Policy*. London eta New York: Routledge.
- Siadeco, 1978: *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del uso del euskara (1978ko urria)*.
- 1979: *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- 1983: *Gipuzkoako Lurraldean euskararen normalizaziorako plangintzaren lehen urratsak* (1983ko abendua).
- Tönnies, Ferdinand, 1887: *Gemeinschaft und Gesellschaft*. Erabilitako ingeles-itzulpena: *Community and Society*, 1957. East Lansing: Michigan State University Press.
- Torrealdai, Joan Mari (ed.), 1972: *Herriaren Lekuko Rikardo Arregi*. Arantzazu/Oñati: Jakin.
- Tovar Antonio, 1980: «Mitología e ideología sobre la lengua vasca». Madrid: Alianza Editorial.
- Urquijo, Julio, 1920: *Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera lengua de civilización*. Bilbo: Bilbaína de artes gráficas.
- Vallverdú, Francesc, 1970: *Dues llengües: dues funcions?* Barcelona: Edicions 62. Bigarren argitaraldia, 1979koa.
- Weinreich, Uriel, 1953: *Languages in Contact*. New York: Publications of the Linguistic Circle of New York.
- Wexler, Paul, 1971: "Diglossia, Language Standardization and Purism", in *LINGUA*, vol 27, 4. zkia.
- Zalbide, Mikel, 1988: "Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak", in *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskara Biltzarra*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia,
- 1998: "Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas", in *RIEV* 43, 2: 355-424.
- 1991: "Eskola hiztun bila: zer dugu gogoeta-gai?" In Basterretxea, Begoña et al, *Eskola hiztun bila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- 2003a: "Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu", in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena, 1-134*. Bilbo: Sabino Arana Kultur elkargoa.
- 2003b: *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?* Ikastolen Jardunaldi Pedagogikoetan aurkeztutako txostena, gero in http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834
- 2004/2005. *Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE*. HIZNETeko ikasgaia, gero in http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1083602190
- 2007: "Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan", in *Euskera* 2007, 1, 61-157.
- 2009: "Interferentzia, hiztun garbien galera eta mintzaldaketa: Hiriart-Urrutiren garaiko zenbait korrelato", in *Beñat Oihartzabali gorazarre ASJU XLIII*: 1-2: 1003-1033.
- Zalbide, Mikel eta Arantzazu Muñoa, 2006: "Lardizabal eta bere gramatika, perspektiba soziolinguistikoa", in Lardizabal, *Gramática Vascongada*, 2006ko berrargitalpena. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Zarraga et al, 2010: *Soziolinguistika Eskuliburua*. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Zuazo, Koldo, 1988: *Euskararen batasuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko alorrean zein dira funtsean hogeitabat urtera begira huts egiteko beldur handiegirik planteatu gabe ezar litezkeen lehentasun-irizpideak?

**Hizkuntza handien eta
euskararen arteko
bizikidetzaren zein ardatz
nagusiren jirabiran antola
liteke liskar-giroa
baretzeko eta hizkuntza
ahularen kaltegarri
izango ez den modus
vivendi luze-asmozkoa
eratzeko?**

OHARRAK

1. Ikus horretaz aurreraxeago esango duguna eta, bereziki, bere *Abestitzak eta Poema Kantatuak* liburuan, 24. eta 25. orrialdeetan, dioena.

2. Manuel Lekuonaren beraren baino areago bere iloba Juan Mariren pentsamoldetik izango du lezioa jasorik (Lete: 2008). Atzerago hedatuz begiak, agian Justo Mari Mokoroagandik ere bai (Mokoroa, 1936).

3. "ikasi" esan dut, eta ez deskuidoz. Orain ahaztuxea badugu ere, 1970era arteko kantu-olerkietan beste jarrera bat erakutsi zuen "poeta gaztea"-k: injustiziarri aurre egiteko asmoz, edozein medio zela on. Ez zen hori Xabierren bereizgarri bihurria, garai hartako euskaldun-jendearen datu soziologiko zabala baizik. Askok ematen genuen, orduan, Xabierren jokabide hura ontzat. Benito Lertxundiren ahotsa gidari zelarik, maiz errepikatzen genuen "ez kanta beltza, berriz ez kanta: indarren kontra jaso indarra". Martin Luther King-en heriotzak eragindako olerki etsiaz, Xabierri inoiz irakurri diodan iritzi bortitzenaz, ikus Lete 1971. Etxeko indarkeriak, Franco hil ondokoak oso bereziki, ikuspegi horrek berrikustapen sakona esjitzzen zuela erakutsi zigun askori, ez guztioi. Lete ez genuen inola ere, norke geure kontura egin behar izandako bideberritze hartan, azkenetakoa izan. Lotsatiena ere ez.

4. Hasiera-hasierakoa eta orain ere, hainbatean, jakintza-sail horretako zenbait buruzagirena. Ia berrogei urtez Fishman-en gidaritzapean argitaratzen den *IJSL* famatua, urrutirago gabe, *International Journal of the Sociology of Language (IJSL)* dugu. Beste horrenbeste esan liteke *Contributions to the Sociology of Language (CSL)* bilduma zabalaz. Motibo askotxo dago, berez, terminologiazko lehenespene horren alde. Fishman-ek egin du, inoiz, motibo horien azalpen egituratua. Nolanahi ere, eta egungo uztari dagokionez, motibo bat azpimarratuko nuke nik: hizkuntza-soziologiak muin-muinean darman ikuspegi soziozentrikoak bere lekua behar du, hizkuntzen eta hiztunen gizarte-dimentsioa ganoraz aztertuko bada, eta leku hori ezin du sarritan ikuspegi linguozentrikoan zentratuegirik ari den *soziolinguistikak* eskaini. *Esne-behia* funtsean *behia* den bezala, eta ez *esnea*, *soziologia* da funtsean *hizkuntza-soziologia*. Ez dago hor linguistikaren eta perspektiba linguozentrikoaren aurkako gaitzespen-gogorik txikiena, esparru bakoitzari bere lekua aitortu nahia baizik. Badakit baieztapen horrekin gutako askori ez diodala pozibide handirik emango, baina kontuak horrela ateratzen zaizkit niri.

5. Hiriart-Urruti (Altzibar ed.: 2004; Zalbide: 2009), Azkue(1895) eta Arana Goiri(1896) ez genituzke aldi hartako ildo-berritzaile bakarrak. Bai, ordea, gerora begira ildo-arrasto zabalena utzi dutenak. Fishman-ek *the earliest stage of language planning: the "First Congress Phenomenon"* moduan emandakoa (Fishman, 1993) ondo samar betetzen da gure kasuan, porrot-giroan bada ere oro har, 1890etik 1900 ingurura doan epearen amaiera-aldiarekin (Zalbide 2003a).

6. Bustintza "Kirikiño", Eleizalde(1918), Urkixo (1920), Altube (1933-35), Agirre "Lizardi" (1934; ik. Otaegi 1987) eta Ariztimuño "Aitzol" (1935)oso kontuan hartzeak ditugu, nolanahi ere, epealdi hartan.

7. Euskal kulturaren ikuspegi zabalagoetik abiatuz hala egin ohi du, adibidez, Joan Mari Torrealdaik. Ez arrazoirik gabe: Parisko Euskal Mundu Biltzarra (lehenengo kongresua) eta Euskaltzaindiaren babespean Arantzazun egindako Euskaltzaleen Biltzarra (lehenengo jardunaldia) urte hartakoak dira, adibidez. Biltzar bateko zein besteko argitalpenetan borborka ageri dira, aski ikuspegi diferenteetatik gainera, euskal hizkuntza-soziologiari buruzko gogoetak eta aurrera begirako aplikazio-ildo operatiboak.

8. Zer pentsatua eman behar liguke, kultura-transmisioaren ikuspegitik bederen, epe horietan esandakoak eta egindakoak hain axaletik eta hain aprezio kaxkarrez ezagutzeak.

9. Zehatz landuak eta, inoiz, teorizatuak.

10. Ikus, adibidez, Zalbide 1988.

11. Ernioaren magaleko Urkizura igo zale genuen, nonbait, olerkaria. Esan dezagun, bide batez, bere hitz lauuko ekarpena hizkuntza-soziologiaren alorreko oharkera aberatsez beterik dagoela. Inoiz, horrezaz gainera, hizkuntza-soziologiaren aplikazio eremu praktikoa den hizkuntza-plangintzaren alorreko proposamen konkreturik ere ez da falta bertan. Lurdes Otaegik aspaldi (Erein: 1987) paratu zigun liburua, Lizardiren kazetari-lanei buruzkoa, funtsezko iturria dugu orain ere. Hori eta, nola ez, 1934ko (Edili etxeak 1972an berrargitaraturiko) *Itz-lauz* famatua.

12. Bere hitza dugu hori, orain ahaztuxea badaukagu ere.

13. Ez naiz lehena hori esaten: "Berreskurapenerako bide aldapatsuan, dudarik ez da Txepetx-en ekarpena (eta ez Tesi mardularen ondorioz bakarrik: orain dela 20 urte ezarri zituen Sánchez

Carrión-ek euskal Soziolinguistikaren zedarriak, bai teoriaren eta bai inkestean alorrean) erabakiorra izan eta izango denik” (Txillardegí, *BAT*, 1992: 6. 8 or).

Badakit besterik dela gure artean, Txepetxek eta bere ekarpenek ari garelarik, luze-zabaleko fama eta sona berekin duena: handik hamabost urtera ondutako *Un Futuro para nuestro Pasado* tesi-lana, asmoz zabalera, azalari dagokionez, 1972koa baino ondotoz teorikoagoa. Hori da, gutako hainbaten ustez, hemengo hizkuntza-soziologiaren benetako mugarria. Besterik uste dut nik ordea, paradigma-aldaketaz eta garai berri baten iragarpenaz ari bagara. *Un Futuro*-ren dohainak gutxietsi gabe, argitalpen horrek baino aurrerapen handiagoa ekarri zuen 1972ko bere lehen lanak gure artera: geroztik oso gutxitan berdindu den aurrerapena. Gehiago ere esango nuke, hartara jarrita: *La Navarra Cantábrica*-ri buruzko bere artikulua (buruz ari naiz orain, baina 1980 inguruan *FLVn* argitara eman zuela esango nuke) aparteko ekarpena da. Hizkuntza eta kultura (batez ere hizkuntza-bilakaeraren zenbaitakoa eta noranzkoa) lekuan lekuko hiztun-taldearen interakzio-moldean eta aldaera-giro soziokulturalean txertatzeko inoiz egin den saiorik sakonena ote den iruditu izan zait irakurri eta berrirakurri dudana bakoitzean. Lastima da, hain funtsezkoak ditugun ekarpen horiek egungo egunean zein bazterturik ditugun ikustea. Egindakotzat ematen dugu, nonbait, lan horien (batez ere 1972koaren) ezagutza; adin batetik gorakoontzat hala izango da gainera, agian. Ez dugu ondo egiten ordea jatorrizko iturria geroztikako albo-iturriez ordezkatzearekin eta, horrela, hizkuntza-soziologiara hurbiltzen ari zaizkigun belaunaldi gazteei iturburura iristeko aukerak murriztearekin.

14. Irakurritakoa zuzena baldin bada ehun eta berrogeita bost herri arakatu zituen 18 urte zuelarik, patrikan xentimorik gabe, bakarrik eta oinez.

15. “Kolektiboa”, bai, nahiz eta hiztun-taldea hainbat kasutan oso mugatua izan aztergunearen biztanle-kopuru txiki-ñimifoaatik (Larraungo Albiasu, demagun). Zer esanik ez baldintza horri adin-eta sexu-aldagaiak gaineratzen dizkion kasu ugarietan eta, bereziki, horri guztiari jardun-gunearen eta rol-harremanen murriztapen-klausulak eransten dizkionean. Normalean erdaraz bizi diren erdal-ehlebidunek edo erdaldun huts direnek, ingurumen-baldintza jakinetan, musean euskaraz egiten dutela konprobatzera iritsia dugu Txepetx, sistematizazio horri eskerrak, bere zehaztasun osoan.

16. Ikus, esate baterako, Eusko Jaurlaritzak (Lehendakaritzaren Gizarte-azterketarako Lan-taldeak) handik hamaika urtera argitara emandako *Euskararen Borroka* (erdal bertsoiak, jatorrizkoak, *La Lucha del Euskara*). Izenburu hau darama liburu hark: *oinarrizko inkesta bat: ezagutza, erabilera eta jarrerak*. Geroztik etengabeak izan dira, jakina denez, zatiketa kontzeptual hirukoitz horren arabera jardun duten lanak.

17. Inork baino argiago ikusi zuen Txepetxek berak, alor horretako nahaspila zer-nolakoa eta zenbaitakoa zen. Bere hitzak dira hauek: “Hasta la fecha, (...) la mayoría de los estudios sobre bilingüismo no han respondido adecuadamente a esta necesidad, y defraudan sobre todo por su falta de precisión conceptual, o cuando ésta existe por una falta de acuerdo entre distintas escuelas, o entre distintas tradiciones, que utilizan terminologías semejantes, si no idénticas, para describir fenómenos objetivamente muy diferentes. De esta manera el confusiónismo y el sectarismo han llegado a ser enfermedades endémicas de esta joven disciplina nacida en un campo donde colaboración y claridad eran las condiciones básicas de su expansión” (1974: 3-4). Nekez esan litezke gauzak argiago. Berea du ondoko pasarte hau ere, artikulua berean: “creemos que la problemática general de la coexistencia de lenguas, debe y puede ser arbitrada por una búsqueda científica, honrada y seria, al servicio de sí misma, y no de las clases dirigentes, o de los sectarismos de grupo” (1974: 5).

18. deigarria da ekarpen konkretu haren eragin zabal hori, irakurleak ez baitirudi milaka izan ginenik. Merezi luke, dudarik gabe, kontzeptu eta termino teoriko batzuen zabalkundeaz, arrakasta akademikoaz eta, bereziki, extra-akademikoaz gogoeta egitea. Jose Manuel Odriozolaren zenbait lanek (1992koak adibidez, Mitxelena helduleku harturik) aparteko begirunea merezi dute alde horretatik.

19. Izugarri ona iruditu izan zait beti, orduko beste ekarpen askoren artean, konpaktazio-beharraren planteamendua. Aitzindaria dugu horretan ere, seguruenik, gure belaunaldian. Baita ahuldutako hizkuntza indarbertzeko orduan eskolak duen ahalmen mugatuaz, herrialde zeltikoetatik (batez ere Eskoziatik) jaso eta gure koordenatuetan txertatzeko egindako saio goiztiarra ere (1974, 24): “la elevación del rango del gaélico, como lengua oficial en las áreas gaelicoparlantes de Escocia no había sido seguida (en 50 años que lleva esta política) por una progresiva revalorización en la conciencia de los hablantes, y por tanto no había sido capaz por sí sola de detener la regresión. ‘A language is only a language while it expresses a culture and a distinctive way of life’ merece una profunda reflexión. En el caso vasco no se debe olvidar que en zonas cerradamente monolingües la escuela por sí

sola difícilmente ha precipitado el retroceso. En cambio su actitud ha sido muy perniciosa allí donde era un reflejo de una situación ambiental de devalorización de la lengua nativa”.

20. Neurri handi batean koiuntura soziopolitiko jakinean (Franco hil aurreko azken hamar bat urtean) elebitasuna aginte-esparrutik nork, nola eta zertarako erabiltzen zuen ikusirik sortutako jokabidea izan zen hori.

21. Mundura (mundu zabaleko esparru akademikora bereziki) ezin zaitezke irten, horrelako postulatu alboratu batekin. Horrek berak ere bere eragina izango zuen, seguruenik, ikuspegi haren orduetik honako bilakaeran.

22. *Konfliktu* hitza ez da gurea, hizkuntza-soziologiaren alorreko beste kontzeptu gehienak bezala. Iturri bitatik etorria dugu: batetik Paisos Catalans d/zirelakoetatik, Aracil izanik iturburu 1965ean (eta Ninyoles bozemaile 1975ean, besteak beste), eta bestetik AEBetatik (gogoratu Haugen-en 1966ko *Language Conflict and Language Planning and in Norway*). Gure erantzukizuna da, aldiz, *conflict(e)* katalan-amerikar hari, hoberik ezean-edo, *borroka* deitu izana. Gogoan dut terminologiako erabaki hura noiz-nola hartu genuen. Jakinaren gainean edo ustez uste gabean, Antonio Tovar-en eta garai hartako beste zenbait intelektual gailenen orbitatik ez genbiltzan hain urruti, aukera hori egiterakoan. Kanpotik etorria izanik ere, itsuak izan beharko genuke gure (eta beste hainbaten) garai bateko “lucha de lenguas” ezaguna (Ariztimuño “Aitzol”: 1935) *konfliktu*-aren kontzeptutik urruti dabilela uste izateko.

23. Aspalditxo emana dut, horren jakin-mina lukeenarentzat, hitz (eta kontzeptu) horri buruzko iritzia (Zalbide: 1988).

24. Ez da hori gure ezaugarri berezia, beste inon ez bezalakoa. Bai, ordea, beste inon ez bezalako itzulipurdika eman ohi zaiona eta horretaz gogoeta gutxiengatik egiten den lekua.

25.: Azalpen osatuago bat honela dio: “cuando apareció por el escenario la palabra ‘diglosia’ que tenía como ventaja no pequeña la de no haber sido nunca mencionada por los que ejercían la dominación lingüística desde el Estado, los ‘colonizados’ cayeron sobre ella como soldados sobre un harén, convirtiéndola en madre de partos múltiples y portavoz de todas sus frustraciones. Lo que ha ocurrido luego con ella es la demostración de que no se pueden establecer unas relaciones normales con una palabra sólo mediante el instinto. Porque, a falta de una formulación intelectual rigurosa que señale con precisión su contenido y sus límites, ha pasado a ser un ejemplo típico de palabra-baúl que significa cosas bien distintas de acuerdo (a) quién se la diga a quién, acerca de qué, cómo, cuándo y dónde.” (1986: 21)

26. Zer neurritan? Ez betiko, halakorik iraupen-eredurik ez baitago munduan, hizkuntzarik indartsuen artean ere; bai, aldiz, hiru bat belaunaldiz gutxienez. Hiru (eta, are bi) belaunaldiko jarraitasun horren falta da, hain zuzen, ezegonkortasun-egoera argiaren seinale: hots, hizkuntza batek (askotan, baina ez beti, H-k) besteari (gehienetan, ez beti, L-ri) espazio soziofuntzionalaren zati bat edo gehiago jaten ari zaioneko adibidea.

27. Baita Alan Hudson-en baitan ere (2003: 367-76). Diglosiaren inguruko sistematizazio-lanik zabalena (ez Fishman-ekin berarekin hika-mikarik gabea) bideratutako aditua dugu Hudson.

28. Biologoien kongresu batera joan eta “katu batzuk ornodunak dira eta beste batzuk martsupialak” esango bagenu, ez genuke seguru asko distorsio handiagorik eragingo.

29. Katalan-literatura teknikoak pisu handia izan zuen horretan, *konfliktu*aren eskutik. *Konfliktuak* bi irteera posible zituen Aracil-en, Ninyoles-en eta gainerakoen iritziz: ahuldatuko hizkuntza desagertu (substitució), hizkuntza handiak mende harturik erabat, edo justu alderantzizkoa (normalització). Diglosiazko egoera ezegonkorra zen hortaz, *per se*. Batera edo bestera makurtzen zen, azkenik, aurrez aurreko hizkuntzen giza arteko moldaera. Ezegonkortasunaren erakusgarri argienetakoa Txepetek berak formulatu zuen etxean, *diglosia glotofágica* delakoaz. “Distorsión social del poder lingüístico” moduan definitu zuen diglosia, 1974an. 1986an, hasierako definizioa zertxobait aldatuz “distorsión político-social del poder lingüístico” moduan birdefinitu zigun (1986: 22), eta argitasun hau erantsi: “el poder político opera esta distorsión (mediante): a) una usurpación de funciones que conduce a la glotofagia; b) desestructuración de los grupos sociolingüísticos de la comunidad lingüística; c) un bilingüismo inestable o de usurpación que culmina en la desnativización”. (...) “en este tipo de situación la “diglosia” es, simultáneamente, glotofagia, bilingüismo de extorsión y aprendizaje lingüístico descompensatorio”. Bere posizio hertsienean ere agertu zuen Txepetek, halere, oso estimatzekoa den malgutasuna: “la diglosia es también una cuestión de grado”.

30. Bere gidaritza intelektuala egiazkoa izan delako, eta hala izan den neurrian, zentratzen gara bere azalpen teorioetan. Gidaritza hori askok, eta era askotara, aitortu diote. Iñaki Arrutik esana da 1995ean, *Bat* aldizkarian, euskara-elkarteez ari zelarik (BAT 16, 41 or.) “Txepetxen lana izan da eragileen iharduna teorikoki gidatu duena”.
31. Ez da bakarra, hizkuntza-soziologiaren alorrean gauzak orain diferente ikusten dituela aitortu duena. Antzera jokatu zuen, goiztiar eta nabarmenki esplizitu, Francesc Vallverdú-k ere. Ikus 1970eko bere *Dues llengües: dues funcions?* liburuaren bigarren argitaraldian, 1979koan, zer zioen: “Hi havia, encara, una altra qüestió. La redacció del capítol primer no em satisfeia, perquè vaig adonar-me ben aviat que contenia algunes inexactituds i confusions, acompanyades de digressions inútils. Unes nocions teòriques mal assimilades i l’intent infructuós de resoldre les contradiccions entre certes tesis i les corresponents dades empíriques foren la causa immediata d’aquelles falles.”
32. Mitxelenak berak, horretan ere maisu agertuz, oso argi ikusten zuen soziolinguistikak bizkarrean zeraman zama astun hori (Odriozola, 1992).
33. Terminologia horretaz jabetzeko ikus Zalbide 2007 eta, beste maila batean, Zalbide eta Muñoa 2006.
34. Dakidan neurrian jestio-ahalmen berezia agertu zuten, aldi bihurri hartan, “Errege” Akademia izendatu berriaren Zuzendaritzako Juan San Martinek eta idazkariorde Jose Luis Lizundiak.
35. Berea izan zen, besteren artean, UZEI sortzeko, gizajendez eta dirubidez hornitzeko eta, urterik bihurrietan, Joseba Intxaustiren eskutik fermuki gobernatzeko ardura nagusia.
36. Beste zenbait kasutan, *ukipen-zonaldeen* formulazioan bereziki, aukeran motx gelditu zen saioa. Praktikan, balio handikoa izan zitekeen terminoak ezin izan zuen elementu tipologiko hutsetik aurrerako ibilbide luzerik egin. Orduan ez zuen egin eta, diogun Iñakiren alde, geroztik ere ez dugu asmatu biziki aitzinatzen.
37. Ilun samarrak gertatu izan zaizkit, hainbat aldiz irakurri ondoan ere, demolinguistikazko zenbait atal.
38. Hori esatean ez naiz alboko edo urrunagoko inor harrikatzen ari, etxeko teilatua astintzen baizik.
39. Ez zen hura, bistan da, azalpen orekatuak eskaintzeko unerik aproposena. Hala jarduten zuenari, hemen edo Ipar Amerikan, errazago esaten zitzaion “guante zuriko aditu” beste ezer baino. Ahalik eta objektibotasun handienaz jokatzeko asmo-aitorpena gorabehera, jarduera zientifikoak hain berea duen *value-free* irizpidea bermatzerik ez zen beti lortu terminologiaren (eta horri, ezinbestean, darion ebaluazio-kargaren) distortsioagatik. Asko kostatu zaigu, gero ere, orduko karga hura gainetik uxatzea.
40. Perspektiba zabaletik jardun nahi duenarentzat, 60ko hamarkadatik honako batasun-saioan gehiegi zentratu gabe, baliozkoa da orain ere Koldo Zuazoren 1988ko *Euskararen batasuna*.
41. Pauso nagusi bi seinatzekotan izen-sintagmen eta elementu jakinen deklinabidea aipatu behar-ko genuke batetik, eta aditz batua bestetik.
42. Gizarte-giro zabal horrek izan zituen, halere, espezialista-adituen bilera-aldi jakinak. Garrantzitsuena, dudarik gabe, Euskaltzaindiak 1978an Bergaran egindako biltzarra izan genuen. Euskara batuaren finkapen-lanean aurrera egiteaz gainera norma estandar berriaren eta euskalkien (batez ere bizkaieraren) arteko eremu-banaketa (endodiglosiko) posiblerako asmorik ez zen bertan falta izan, Mikel Zarate buru zelarik.
43. Mitxelenaren kasua alde batera uzten bada noraino ezagutzen genituen, axaletik bada ere, Bohumil Havranek (1938 eta 1964) batetik eta Paul Garvin (1954) bestetik?
44. Lege hura labean nola erre eta mahairatzeko orduan nola gatz-ozpindu zen jakin nahi duenak jo beza, hoberik ez baitago orain ere, Eusko Legebiltzarraren 1991ko argitalpen berariazkora.
45. “Gidari” bai, baina ez irtenbide bakar. Inoiz azaltzen saiatu izan naizenez (Zalbide 1998), mende-baleko gizarte modernizatueta zaila da, praktikan, erabat territoriala edo erabat pertsonalista den irizpidea aplikatzea. Irizpide bakoitzaren on-gaitzez egin diren balioespenetan irakurtzekoa da, orain ere, McRae (1983).
46. Esan dezagun, bide batez, guztian ez zebilela Txepetx aldiko (zer esanik ez egungo) errealitatetik erabat aparte. Endo(di)glosiaren alorrean, konkretuki, argitasun handia azaldu zuen hasieratik (1986: 32).
47. Hor sartu beharko lirake, jakina, egin zirenak nola eta zer emaitzaz egin ziren argitzea, egin zitezkeelarik egin gabe utzi zirenak zehaztea eta egin izan ez balira hobe zirakeenak konkretatzea. Lantxo honen esparrutik kanpora gelditzen dira horiek guztiak.

48. Alor horretako zenbait neurriren (batez ere hezkuntzaren alorreko neurrien) gaineko nire iritzia izan nahi duenak badu nora jo.
49. Bazterreratze hori zer neurritan izan zen nahita, zer neurritan zoriz eta zer neurritan halabeharrez, berariaz analizatzea merezi lukeen gaia da.
50. Xabier Erizek Nafarroaz egindako lana, egungo hizkuntza-soziologian aski ongi txertatzen dena, perspektiba berri aberats baten atariko dugu eta, alde horretatik, esparru honetan lanean dihardugun guztion ongi-etorria merezi du (Erize, 1998).
51. Autorez aldatu gabe ikus, esate baterako, Erize 2001.
52. Ez horiekin bakarrik: bere itsutasun distiratzailan itsu jarraitu nahi ez duen orok erraz ikus dezake, *gure hic et nunc*-eko jurilinguistikaren bilakaera praktikoa (Kataluniakoa adibidez), Konstituzio Epaitegiaren bidez, nondik nora doan. Bestea, *hic-et-nunc*-ez apartekoa, atseginagoa izango da agian baina defektu txiki bat du: ez da esistitzen.
53. Ikastea eta aldian behin, horren beharrea garenean, gogoratzea. Batzuek eta besteok gutxi izateak, eta elkarren hurbil samarreko ezagun gehienetan, eragotzi egin du antza, indartu ordez, errespetuzko jarrera horren aurrerabidea.
54. Adituak sortu eta garatzea ez da, berez, lan erraza. Atzerrian ere badakigu gauza hauek ez direla gauek goizera osatu izan. Soziolinguistika modernoaren genesia bera aski adierazgarria da puntu horri dagokionez. Bloomington-go 1964koaz ikus, adibidez, Christina Bratt Paulston eta G. Richard Tucker, (ed.), 1997: *The early days of sociolinguistics: memories and reflections*.
55. Kontua ez da berria. Txepetx bera izan zen, oker ez banago, “nicho” baten beharraz mintzatu zena, Jose Miguel de Azaolak ere antzeko aipamenik egin zuen (1972an oso oker ez banago), eta antzeko terminoetan mintzatu zen (horren alde, ez kontra) Mitxelena. Urteak eta hamarkadak aurrera doaz ordea, eta izugarri kostatzen zaigu funtsezko galdera horiei aurrez aurre heltzea. Gogoeta-ebxe horren faltan beste norbaitek helduko dio, agian, lanari. Lan hori egin nahi duenak hobe izango du, dena den, ohar pare hau gogoan izatea. Batetik, horrelako lan bati ez dago probetxuz ekiterik formazio soziolinguistiko on bat gabe; bestetik, horretan sartu nahi duenak bigarren plano batera eraman beharko ditu bere interes pertsonal eta partisanoak, halakorik baldin badu besapean, eta objektibotasun-egarria lehen mailara ekarri. Huts egingo dugu bestela, berriro ere, hain funtsezkoa dugun eginbehar horretan.